

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK  
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN**

**Egileak:**

Angel de Carlos García  
Amaia Arregi Martínez  
José Ramón Ugariza Ozerin  
María José Lobato Fraile

# AURKEZPENA

Eskola muinbakar eta integratzaile batek ikaslegoaren hezkuntza beharrian ugariak onartu behar ditu eta, ezberdintasun hori kontuan hartuz, eragozpen gehiago dutenen alde, hezkuntza premia bereziak dituztenen alde, alegia, lehentasunezko jarduera eta estrategia bereziak eskaini.

Arrazoi ezberdinek eragindako aniztasun horri aurre egiteak etapa honetan zehar ikasle guztien eta haietako bakoitzaren hezkuntza beharrianei erantzutera datozen curriculum egokitzapenak antolatzea eskatzen du.

Hezkuntza premia berezidun ikasleentzako hezkuntza helburuak gainontzeko ikaslegoarentzako ezarritakoak dira: garapen pertsonal eta sozial zabalena lortzea, ahalik eta hezkuntza testuinguru normalduenean. Helburu hori erdiestekotan ezinbestean egokitu eta malgutu behar ditu bere egiturak Hezkuntza Sistemak, horrela ikasleen beharrian orokor zein berarizkoei erantzun ahalik eta egokien bat eman ahal izateko.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak, gizartearentzat bere kide orenen, hezkuntza premia berezidunak barne, eskolatzeak duen garrantziaz oharturik, testuinguru orohartzaile batean hezkuntza-erantzun egoki bat ematea ahalbidetzen duten laguntza eta orientabiderako tresnak eskaintzea nahi du.

Ildo horretan, dokumentu honek hainbat ikasle taldek agertzen dituen ezaugarri eta beharrian orokorreari buruzko informazioa eskaini nahi dio irakaslegoari, bertan aurkezten diren jarraipen eta estrategiak egoera ezberdinetan irakaslegoaren eskuharmena planteatzerakoan abiapuntu gerta daitezkelakoan.

**Edurne Gumuzio Añibarro**  
Pedagogi berrikuntzarako zuzendaria

# Aurkibidea

## LEHEN ZATIA

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Sarrera .....	3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren printzipioak eta xedeak.....	3
Curriculumaren antolamendua .....	4
Aniztasunarekiko arreta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.....	3

## BIGARREN ZATIA

### HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Mugimen urriko ikasleak .....	10
Gaitasun handiko ikasleak.....	14
Adimen urriko ikasleak .....	18
Autismoa eta bestelako garapen-nahasteak dituzten ikasleak.....	22
Gizarte eta famili ingurune kaltetuei lotutako HPBak dituzten ikasleak .....	26
Ikusmen urriko ikasleak .....	30
Entzumen urriko ikasleak.....	37

## HIRUGARREN ZATIA

### HEZKUNTZA-ERANTZUNAREN ANTOLAMENDUA

Hezkuntza-prozesua indibidualizatzeko irizpide orokorrak.....	45
Taldearen curriculuma definitzeko eredu bat.....	54
HPBak dituzten ikasleentzako erantzunaren antolamendua.....	61

Lehen Zatia

Derrigorrezko Bigarren  
Hezkuntzaren Ezaugarri Orokorrak

## Sarrera

Hezkuntza-etapa honetan, berezko zentzua duen hezkuntza-prozesu baten inguruko ideia ondorengo ikasketetarako prestakuntzaren edo, hala badagokio, lan-mundurako prestakuntzaren inguruko ideiarekin orekatzeko beharra aipatzen da. Bi ideia horietan, hain zuzen, eta hezkuntza-etapa honen oinarritzko eta derrigorrezko izaera kontuan izanik antzeman daitezke bestelako faktore psikopedagogikoak eta etapa banatuta dagoen bi zikloen azterketatik ondorioztatzen diren ezaugarri ugari.

Etapa honetan lortu nahi diren helburuek neurri handi batean soilik akademikoak diren eremuak gainditzen dituzte, gizartearen eskari sozialei eta kulturei erantzun nahi baitzaie ikasle guztiek murgilduta dauden gizarte horretan kide aktibo eta arduratsu izatea lortuko dutela ziurtatzearen.

Proposatutako ahalik eta helburu gehienak lortzeko, ikasleen ikaskuntza eta garapen-prozesuak ez ezik, norbere ezaugarriak eta interesak hartu behar dira kontuan, ikaskuntza horien osagai izan behar duten ezagutzak aintzat hartuz, eta disziplinak beste helburu batzuk lortzeko bitarteko bat direla jakinik. Eskari sozial horri esker, ikasleak bereizteko praktika tradizionalak gutxinaka-gutxinaka alde batera utzi eta urritasunak dituzten ikasleak eskolan, lanean eta, orokorrean, komunitatean integratzeko joera hartu da.

Gaur egun hezkuntza-premia bereziekin eskolatutako ikasleak gero eta gehiago direla eta aniztasuna hezkuntza-printzipio gisa onartzen dugula kontuan izanik hezkuntzaren esku-hartzearen osagaiak definitu behar ditugu, ikasle horietako bakoitzari bere ohiko giroa aintzat hartuz egokitzearen, eta testuinguru jakin batean eta denbora mugatu batzuetan zehar helburu jakin batzuetara bideratzearen.

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren printzipioak eta xedeak

Edozein hezkuntzaren izaera soziala eta kulturala praktika eta iharduera batzuek osatzen dute, eta horien bidez giza taldeek beren kideei laguntzen diete antolatutako esperientzia kulturala bere egiten, beren garapen indibiduala eta soziala lortzearen.

Hezkuntzaren balio sozial horrek, hain zuzen, alderdi akademikoez gain gizartearen eta berau osatzen duten pertsonen interesekin dituen erlazioak aipatzea eragiten die prestakuntza-tarte bakoitzaren ezaugarri diren xedei eta printzipioei.

Ildo horretatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) zentzua ematen dion oinarritzko jarraibideetako bat ikasleek kulturaren oinarritzko elementuak bere egitea eta horietan sakontzea da, errealitatea hobeto interpretatzeko eta errealitate horretan sortzen zaizkien arazoei tresna, ezagutza eta jarrera egokiarekin irtenbidea emateko.

Beste xedeetako bat prestakuntza jarraitzea da, ikasleei ondorengo ikasketetara edo Lanbide-Heziketari eta lan-munduari lotutako prestakuntza-prozesuetara sartzeari ahalbidetzeko.

Bi xede horiek ondoren adierazitako hitzetan agertzen dira: *“Ikasle guztiei kulturaren oinarrizko osagaiak transmititzea, betebeharrak eta eskubideak betetzeko hezitzea eta bizitza aktiboan sartzeko edo Erdi-Mailako Berriazko Lanbide-Heziketan edo Batxilergoan sartzeko prestatzea”*.(LOGSEren 14. art.).

Bi xede horiei erantzuteko asmoarekin, etapa honen antolamendua bi oinarrizko printzipio osagarri zuzentzen dute: muinbakartasuna eta aniztasunarekiko arreta. Planteamendu horretan oinarrituta, alde batetik, prestakuntza balioanizta eskaini nahi da, ikasle guztientzako amankomunak diren eduki-nukleo baten bitartez eta, bestetik, bigarren zikloan zehar curriculum-edukinak gutxinaka-gutxinaka bereizi nahi dira, ikasleek aukeratzeko duten tartea edo gunea pixkanaka zabalduz.

Etaparen helburuek eremu akademiko soila gainditu eta ondoren adierazitako gaitasunei lotutako funtsezko alderdiak barne hartzen dituzte: arazo erreala aztertu eta konpontzea, kritikarako sentimendua eta sormena garatu eta praktikatzeko, hiritar-lankidetzarako, elkartasuneko eta talde-lanerako ohiturak hartu eta praktikatzeko.

## Curriculumaren antolamendua

Arlotzat etaparen helburu orokorren asmoak helburu, eduki, etab.etan artikulatzen diren curriculum-unitate gisa hartzen da. OCDn adierazi bezala, tradizioz ia soilik espezializazio akademikoari eta zientifikoari lotutako eskola-disziplinek baino gehiago, arloak izaera teorikoa eta funtzionala duten edukiak elkar lotu ahal izateko esparrua osatzen du, hala, ikaskuntza integratzaileagoa eta baliagarriagoa sustatzen baita errealitatea ulertzeko eta bertan nahiz bere gainean iharduteko.

Arloaren OCD garatzeko tresna irekia eta malgua da, ikastetxeei eta irakasleei autonomiaz jokatzeko margina zabala uzten baitaie curriculumaren zehazteko garaian, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten horiek barne direla ikasleen aniztasunari arreta eskaintzeko beharrezkoak diren aukerakotasun-planteamenduak hobeto barneratzea ahalbidetzen du.

Curriculum-erloek gaitasunak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak taldetan banatu eta talde horiei izena ematen diete. Edukinen sailkapen horretan, historian zehar ezagutza egituratu duten disziplina tradizionalak esku hartzen dute; ordea, arloen eta dagozkien edukiaren izen berriak ikasleek bere gaitasunak garatzeko behar duen horretara egokitu dira.

# Aniztasunarekiko arreta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Gaur egun, Hezkuntza-Sistema baten eta ikastetxe baten kalitatea ikasleen aniztasunari, desberdintasunei eta berezitasunei erantzun egokia emateko duen gaitasunaren arabera neurtzen da gehinbat, eta horretan denok ados gaudela esan daiteke.

Curriculumaren ikuspegitik, aniztasunari arreta eskaintzeko bide bat baino gehiago dago eta ez dira bide alternatibo gisa hartu behar, aldi bereko bide edo bide osagarri gisa baizik. Hala, LOGSEk eta lege hau garatzen duten Dekretuek aniztasunari arreta eskaintzeko bide esanguratsuena eta garrantzitsuena curriculumaren izaera irekia eta malgua dela adierazten dute. Bide horrek, aurrikusitako zehaztopen-maila desberdinen bidez, ikastetxe bakoitzeko ikasleen, ikastalde bakoitzaren eta, azkenik, ikasle jakin bakoitzaren ezaugarriei egokitutako hezkuntza-iharduna ahalbidetu behar du.

Aginduzko curriculum-egokitzeko eta zehazteko aukera horren aurrean, etapa eta maila guztietarako curriculum-eredu amankomun bat aukeratu da, eta bertan aniztasunari arreta eskaintzeko eta hezkuntza-premia bereziei erantzuteko ahalmena ematen dioten ezaugarri batzuk ezarri dira. Hona hemen ezaugarri horietako batzuk:

- Hainbat gaitasunen garapena sustatzea, berdintasunaren ikuspegitik tradizioz ahaztu izan diren garapenaren alderdiak asumituz eta, hala, ikasle bakoitzaren osotasuna neurri handiagoan asumitzea ahalbidetuz.
- Une bakoitzeko premia psikopedagogikoetara egokitutako curriculum-antolamenduak ezartzea.
- Ikaskuntzaren alderdi praktikoak eta funtzionalak azpimarratzen dira.
- Orientabide-dinamika sustatzen da, tutoretzaren eta orientatzailearen aholkularitzaren inguruan banatutako irakasle-taldeen zereginean oinarritua.

Muinbakartasunak ikasgelako aniztasuna onartzea eta, horren ondorioz, aniztasunari arreta eskatzen zaion talde batean hezkuntza-arloko esku-hartzea dakar berekin, diferentziak errespetatuz eta desberdintasunak konpentsatuz.

Izaera muinbakarreko irakaskuntza batean aniztasuna onartzeko eta aztertzeko, etapa honi programa amankomunaren eta ekintza dibertsifikatuaren artean behar adina oreka izatea ahalbidetzen duten elementuak eman behar zaizkio, subjektuen gaitasunak ahal den guztia garatzeko.

Curriculumaren ikuskerak berak hezkuntza-egoerak testuinguru desberdinetara pixkanaka egokitzea (ikastetxea, ikasgela, norbanakoa) ahalbidetzen du, irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak ikasle-talde baten ezaugarrietara egokitu arte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aniztasunarekiko arretak erabakiak hartzean adieraziko den etengabeko zehaztopen-lana esan nahi du, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua lantzetik hasi (IHP) eta Unitate Didaktikoetaraino, Ikastetxearen Curriculum-Proiektutik (ICP) eta etapako nahiz zikloko programazioetatik igaroz. Horiek landu eta



praktikara eramateko zereginen ikastetxeko irakasle guztiak daude inplikatur, maila desberdinetan: zuzendaritza-taldea, irakasle-taldea, ziklo, departamentu edo mintegi-taldea, eta beharrezkoa izanez gero Eskolaz Kanpoko Laguntza-Zerbitzuen aholkularitza.

Irakasle-taldearen elkarlan hau curriculumaren elementu desberdin guztien gogoetan eta ikasgeletan teoria eta praktika elkarlotzeko ahaleginen oinarritzen da.

Izaera orokorreko neurri horiei berariazko izaera duten beste neurri osagarri batzuk erasten zaizkie, hau da, Aukerakotasuna eta Hautazkotasuna batetik, eta, hezkuntza-ahalegina bestetik.

Neurri osagarri horiei aniztasunari arreta eskaintzeko aparteko neurriak gaineratu behar zaizkie, esaterako:

- Eskolatzeko-aldiaren malgutasuna, ikasle-motaren arabera iraupena gehituz edo murriztuz.
- Curriculum norbanakoari egokitzea.
- Curriculum desberdinak eratzea.

Bigarren Zatia

Hezkuntza-premia bereziak dituzten  
ikasleak Derrigorrezko Bigarren  
Hezkuntzan

Zenbait lege eta arauditan aipamen zuzena egiten zaie HPBak dituzten ikasleei eta horien hezkuntzari heltzeko modua zein den jakiteko orientabideak ematen dira. Hala, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren Legeak Bigarren Hezkuntzaren oinarritzko irakaskuntza-izaera eta, beraz, bere izaera muinbakarra definitzen du, eta ikaslegoari, oso anitza izan arren, prestakuntzarako aukera berdinak eta hezkuntza-esperientzia berak eskaintzen dizkie. *Etapak hau HPBak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitzeko beharra* ezartzen da. Aldi batean edo beti HPBak dituzten ikasleek hezkuntza-sistemaren barruan ikasle guztientzako izaera orokorrez ezarritako helburuak lortu ahal izango dituztela adierazten da. Euskal Eskola Publikoaren Legeak hau dio: “minusbalio fisikoak edo psikikoak konpentsatuko dituzten neurri indibidualak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntza-premia bereziei aurrea hartu, goiz antzeman, dagokien testuinguruan aztertu eta erantzun egokia emango zaiela bermatuko duten neurriak hartuko dira”. Neurri horietako bat etaparen Curriculum-Garapenari buruzko Dekretuan zehazten da, honela dioenean: “curriculum-egokitzapenak egin ahal izango dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei begira, eta egokitzapen horiek curriculumaren edukinetatik eta ebaluaziorako irizpideetatik nabarmen aldentu ahal izango dira”. Ikastetxeen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko Lege Organikoak honela dio: “Hezkuntza-administrazioek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak fondo publikoen sostengua duten ikastetxeetan eskolatu ahal izango direla bermatuko dute, eta beti ikasleen banaketa orekatua egingo da, ikasle horien kopurua eta zirkunstantzia bereziak kontuan izanik, hala, ideia integratzailea modu eraginkor batean garatzeko”. Gainera, ikastetxe horiek “aurreko puntuan aipatutako ikasleak Administrazioak zehaztuko dituen gehienezko mugen barruan eskolatzera” behartuta daudela adierazten da.

Aniztasunarekiko arreta hezkuntza-etapa honen lehentasunezko printzipio bat da, hezkuntza-erantzuna antolatzeko oinarritzat hartu baita. Hala, eskola-sistema ikasle guztien ezaugarrietara egokitzen saiatzen da, haien hezkuntza-premiei erantzutearren. Eta hezkuntza-premia horiek premia berezi gisa hartu ahal izango dira hezkuntza-prozesuan zailtasun handiagoak dituzten ikasle batzuen kasuan.

Hezkuntza-premia bereziak urritasunen batek (fisikoa, sensoriala, intelektuala, soziala edo horien arteko edozein konbinazio) ikaskuntzan eragina duenean antzematen dira, eta beti ere hezkuntza-neurri bereziak, curriculumera sartzeko egokitzapenak edo curriculum beran aldaketa garrantzitsuak eta nabarmenak beharrezkoak direnean, hau da, neurri arruntak modu eraginkor batean erantzuteko adina ez direnean. Ikaslearengan hezkuntza-premia bereziak honela antzematen dira: *ikastea bere adineko gainerako ikasleei baino zailagoa egiten zaionean edo ikastetxeak eskaini ohi dituen hezkuntza-aukerak erabiltzea eragozten dion minusbalioren bat duenean* (Warnock, 1981). Oztopo horien eragileak *funtsen elkarreragileak dira* (Wedell, 1981). Hau da, ikaslearen hezkuntza-premia berezien jatorria “elkarreragilea” dela esaten denean, premia horiek “erlatiboak” direla esan nahi da, hau da: ikasleak berez (“barruan”) dituen urritasunen nahiz ikaslea moldatzen den inguruneak (“kanpoan”) urritasunen menpe daude. Beraz, zenbait hezkuntza-premia berezi bihurtzea ikasle jakin baten egoera pertsonalaren, antzematen zaizkion arazoaren, edo eskolatuta dagoen hezkuntza-testuinguruaren menpe dagoela esan daiteke.

Ikuspegi berri honetatik begiratuta, hauxe interesatzen zaigu: *ikasleen hezkuntza-premiak ezagutzeko estrategia egokienak garatzeko eta laguntza pedagogikoa emateko*, ahalik eta garapen pertsonal eta sozial handiena lor dezaten.

HPBak continuum batean zehar agertzen dira, hau da, arinenetatik hasi -horiei curriculum arruntean aldaketa txiki batzuk eginez erantzun ahal izango zaie- eta larrietaraino -ikasle gehienei eskaintzen zaien erantzun-motatik nahiko aldenduko diren hezkuntza-erantzun bereziak beharko dituzte-. Gainera, HPBak iraunkorragoak izan daitezke edo iragankorki edo aldi batez ager daitezke.

Etapa honetako ikasleak izan ditzakeen hezkuntza-premia bereziak bere ezaugarri pertsonalen eta moldatzen den gizarte nahiz hezkuntza-eremuko baldintzen arabera izango dira. Taldeetan bana daitezke, ikasleen zailtasun nabarmenenak kontuan hartuz, baina horrek ez du esan nahi urritasunen bat duten ikasleen hezkuntza-premiak nahitaez berdinak direnik, ez eta premia horiek beti “bereziak” direnik ere. Are gehiago, zenbait hezkuntza-premiak, testuinguru jakin batean “berezi” gisa hartzen diren horiek, hezkuntza-egoera egokituagoetan ez dute “berezi” izaten jarraituko.

HPBak dituen ikasleari erantzuteko bere hezkuntza-historiala kontuan hartu beharko da, hain zuzen ere Lehen Hezkuntzan egin behar izan zaizkion curriculum-egokitzapenetan jasotakoa. Lehen Hezkuntzaren azken zikloko curriculumean egindako egokitzapena, egindako azterketarekin batera, garrantzizko erreferente izango dira ikaslearen hasierako ebaluazioa egiteko garaian eskola-testuinguruan eta irakaskuntza/ikaskuntza egoeretan zein aldaketa egin beharko diren eta behar dituen giza eta material-baliabideak zeintzuk diren erabakitzeke.

Problematika desberdinen azterketa eta analisisia erraztearren -eta horrekin ikasleak ez dira zertan urritasunaren arabera sailkatu behar- ondorengo taldeak ezar daitezke:

- Entzumen, ikusmen edo mugimen urriko ikasleak, problematika intelektual edo emozional nabarmenik ez dutenak. Funtsean, baliabide teknikoak, laguntza bereziak eta komunikazio-sistema alternatiboak behar izango dituzte, horrela curriculum arruntean errazago sartu ahal izango baitira.
- Kaltetutako ingurune soziokultural bateko edo beste kultura bateko ikasleak, eskolak proposatzen dituen ikaskuntza-zereginetara egokitzeko zailtasunak dituztenak.
- Oinarrizko arloetako (hizkuntza eta matematika) edukin instrumentalak eskuratzeari dagokionez ikasteko zailtasun bereziak dituzten ikasleak. Neurri indargarriak hartu beharko dira, edukinen sekuentziazioan eta estrategia metodologikoetan aldaketak eginez.
- Adimen-urritasunen baten eraginez, ikasteko zailtasun orokorrak dituzten ikasleak. Eskolaketa guztian zehar curriculumean egokitzapen nabarmenak egin beharko dira horientzako.
- Garapen-nahaste orokorrak dituzten edo horientatik larriki afektatuta dauden ikasleak. Horien eskolaketa funtsean gela egonkorretan garatuko da.
- Arazo emozionalak edo/eta jokabidezkoak dituzten ikasleek ikasteko zailtasunak izan ohi dituzte.

- Gaitasun handiko ikasleak.

Ondoren, ikasle batzuen ezaugarri generikoak deskribatuko ditugu, hain zuzen ere urritasun-mota desberdinetan jatorria dutenak eta horien premiei erantzun ahal izateko aparteko hezkuntza-neurriak beharko dituztenak. Horrek ez du esan nahi bestelako premiarik izango ez dutenik (medikuntza, asistentzia, etab.), gure arreta guztia dokumentu honen ikuspegitik interesatzen zaizkigun hezkuntza-alderdietan jarriko dugula baizik.

Oso modu orokorrean eta hezkuntza-arloan ihardunbideak eskaintzeko helburuarekin erreferentzi esparru bat hartuko da kontuan, urritasunak ikasleen izaeran eta ingurunearekin duten harremanean nola agertzen diren, aurrekoaren ondorioz sortzen diren HPBak zeintzuk diren eta ahalik eta hezkuntza-testuinguru normalizatuenean hezkuntza-ihardunbide egokienak zeintzuk diren jakiteko.

# Mugimen urriko ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Mugimen urriko ikasleak mugimen-aparatuan alterazioren bat du, iraunkorra edo iragankorra, sistemaren bateko (hezur-artikulazioena, muskulu edo nerbio-sistema) anomaliaren batek eraginda, eta hori bere adineko ikasleek egin ditzaketen ihardueretakoren bat egiteko eragozpide bat da beretzat, handia nahiz txikia izan daitekeena. Afektatutako sistemaren arabera, mugimen-urritasunak ezaugarri jakin batzuk ditu. Eskolan gehien agertzen diren horiek aipatuko ditugu ondoren (garun-paralisia eta garezurreko eta entzefaloko lesioak), anomalia horiengatik afektatutako ikasleen ezaugarri generikoak zeintzuk diren zehaztuz.

**Garun-paralisia** garuna erabat garatu eta hazi aurretik bertako lesio batek posturan edo mugimenduan sortutako alterazioa da. Lesioa gertatzen den adinaren arabera, sortutako alterazioek era desberdinetan afektatuko dute haurren garapena. Garun-paralisiak dakartzan ondorioak honako hauek dira:

- Postura kontrolatzeko, borondatezko mugimenduak eta mugimendu koordinatuak egiteko eta gorputza orekatzeko zailtasunak.
- Zaila edo ezinezkoa zaie beren mugimenduak eta postura kontrolatzea motrizitate fina eskatzen duten iharduerak betetzeko (idaztea, zenbait tresna erabiltzea, etab.).
- Garun-paralisia duten batzuk ez dira muskuluak erlaxatzeko gai izango geldi egon arren, eta geratzen zaien borondatezko kontrola oraindik gehiago eragozten duten espasmoak izaten dituzte.
- Mugimenduak erregulatzeko ezintasuna. Horren eraginez, mugimenduak handiak eta bat-batekoak dira.
- Litekeena da estrabismoa izatea, eta horrekin batera zailtasunak izaten dituzte espazioan.
- Behar bezala zurgatu, irentsi eta murtxikatzeko ezinbestekoak diren zenbait faktorek eraginda, ez dute lortuko masailezur, ezpain eta mingainaren behar adina mugimendu lodi, eta horrek eraginda hitz egiteko beharrezkoak diren mugimendu finak eta zehatzak ondoren garatzeko zailtasunak izango dituzte.
- Arnasaren erritmoan alterazioak dituzte, eta horrek hitzaren intonazioan eta erritmoan eragiten du, ulertzeko zailtasunak sortuz.
- Aurrekoaren ondorioz, arazoak izaten dituzte fonemak ahoskatzean, omititu eta ordezkatu egiten baitituzte.

Sortzen diren alterazio desberdinen ondorioz, afektatuen aniztasuna handia izango da komunikazioaren eta hizkuntzaren arloei dagokienez, eta bi talde nagusi bereizten dira:

- *Mintzamina duten garun-paralitikoak*, zailtasunak izan arren komunikatzeko mintzamenaz balia daitezkeenak.
- *Mintzamenik gabeko garun-paralitikoak*, komunikatzeko mintzamenaz baliatu ezin direnak. Gainera, motrizitatearen problematikak, garapenaren aurreneko fasean, haurraren eta bere familia eta/edo zaintzen duten pertsonen arteko komunikazio afektiboa baldintzatuko du, komunikazio-mota hori hitzezkoa ez den bidetik ezartzen baita. Adierazitako zailtasunek atzerapena eragingo dute hizkuntzaren garapenean - maila semantikoa, sintaktikoa eta fonologikoa-, eta horrekin batera idatzizko kodea eskuratzean eragina izango dute.

**Garezurreko eta entzefaloko lesioetan** ezaugarri desberdinak antzematen dira afektatutako zonaren eta lesioa gertatzen den moduaren arabera. Mugimenduari dagokionez, garun-paralisan gertatzen diren antzeko arazoak sor daitezke. Komunikazioaren eta hizkuntzaren kasuan, hizkuntzaren elaborazio eta produkzio-arloak afektatuta baldin badaude, ahozko adierazpenean zenbait alterazio gertatuko dira (hiztegi urria, esaldi laburrak, nahasteak ahoskatzean, nahasteak ahotsa emititzean, sarritan inguruan dituzten objektuen izena, aditzak, izenondoak... gogoratzeko zailtasunak, etab.) bai eta ahozko ulermenean ere, esaldi laburrak eta ezagunak bakarrik ulertuko baitituzte. Idatzizko hizkuntzan ere oso alterazio nabarmenak gerta daitezke, bai irakurmenean bai eta idazmenean ere (irakurketa geldoa, intonaziorik edo erritmorik gabea, ahozko hizkuntzan baino zailtasun handiagoak ulertzeko garaian, ortografia arbitrarioan errakuntzak, etab.).

Mugimen urriko pertsonen mugimenduen kontrolik ez izateak errealitatearekin harreman egokia izatea eragozten die, ezaguerak eta garapena mugatzen dizkie, eta ingurunearekiko interes falta eragiten du. Gainera, helduaren etengabeko menpekotasuna gerta daiteke, eta horrek, sarritan, pasibitate handiko jarrera eragingo du. Inguruneke pertsonen jarrerak neurri handi batean baldintzatuko du haiek normalizazio soziala.

Mugimenean badira bestelako alterazio batzuk (bizkarrezur bífidoa, poliomielitisa, muineko lesioak, muskulu-distrofia progresiboak) eskoletan gutxiago antzematen direnez aipatuko ez ditugunak.

### ***Hezkuntza-erantzuna***

Hezkuntza-erantzuna definitzeko motrizitatean, pertsonarteko harremanetan eta ikaskuntzan antzemango zaizkien zailtasunak kontuan hartu beharko dira.

Mugimen urriko ikasle gehienengan, zailtasunak antzematen zaizkie ***mugikortasunean, postura kontrolatzean eta/edo manipulatzeko***. Beharrezkoa izango da ikasleak lekuz aldatzean duen autonomi maila behatzea (bakarrik edo laguntzarekin ibiltzen da, aldapak igotzen ditu, gorpil-aulkia erabiltzen du, etab.) eta postura, buruaren mugimendua, eta goiko nahiz beheko gorputz-atalak kontrolatzen ote dituen ikustea. Ikaslea moldatzen den inguruneak beharrezko laguntzak eskaintzeaz gain era guztietako egokitzapenak egin behar ditu ahalik eta autonomi maila handiena ematearren. Objektuekiko elkarreragin hori ahalbidez, laguntza tekniko jakin batzuz baliatzen jarraitu beharko da. Adibidez, ikasleak ezin baditu objektuak izendatu edo eskuarekin

seinalatu, baina buruarekin mugimendu kontrolatuak egiteko gai baldin bada, objektuak edo horien adierazpena ipiniko dizkiogu, buru likornioaren laguntzarekin (buruan kopetaren edo kokotsaren aldetik eusten den hagatxo) seinalatu ahal izateko.

*Komunikazioa* mugimen urriko ikasle batzuk afektatzen dituen beste alderdietako bat da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasten duten ikasleek aurretik komunikazio-sistema alternatiboren bat garatzeko aukera izan badute, irakurketa/idazketaren ezaguerarekin batera, komunikazio-maila onargarria eskuratu ahal izan dute. Mugimen urriko ikasleek gehien erabiltzen dituzten sistemak grafiko bidezkoak dira, eskuarekin nekez egin baitezakete keinurik. Erabiltzen dituzten ikurren abstrakzio-mailagatik bereizten dira, horrela pertsonaren ezagueraren garapen-mailara egokituz. Etapa honetako irakasleek ikasleak erabiltzen duen komunikazio-sistema erabili beharko dute inguratzen dutenek onartu, ulertu eta baloratzen dutela erakusteko, eta ikasleak garatu dituen adierazpen-estrategiak errentabilizatu eta edozein ikaskuntza-egoerara aplikatuko dituzte.

Mugimen urriko ikaslea bere ingurune fisiko eta sozialarekin elkarrengaitera bultzatzearen, beharrezkoa izango da aurpegiaren espresioak, begien mugimenduak, soinuak, ahoskerak, eta nahita egindako edozein keinu kontuan hartzea, horiei esanahia ematen ikasteko: elkarrengaiten ari den pertsonaren arreta lortu eta mantentzea, nahiak, beharrak, gaitzespena, esker ona, etab. adieraztea.

Erritmoan, ahotsean edo ahoskeran zailtasunak izan arren gutxi gorabehera uler daitezkeen hitzak emititzen dituzten ikasleen mintzamena aprobetxatu behar da.

Mintzamena duten horien artean sartzen diren ikasleen ahalmen hori aprobetxatu behar da hizkuntza-arloko edukin desberdinen ikaskuntza erraztearen, ahoskeran, erritmoan edo ahotsean akatsak antzematen bazaizkie ere.

Oso mugimen urriko ikasle batzuek irakurtzen ikas dezaten, beharrezkoa izango da laguntza jakin batzuk erabiltzen jarraitzea (atrilak, eskuarekin, ahoarekin edo buruarekin orriz pasatzeko tresnak, informazioa orri batetik ordenadorera pasatzeko scannera, etab.). Eskuak erabil ditzaketen ikasleek idazten ikasteko, arkatzari behar bezala heltzeko egokitzapen batzuk besterik ez dira beharrezkoak izango. Zuzenean idatzi ezin dutenean, beharrezkoa izango da beste laguntza-mota batzuetara jotzea (idazmakina normalak edo elektronikoa eta ordenadorea eta periferikoak, xagu egokituak, etab.). Teklatua eta ordenadorea erabiltzeko egokitzapen batzuk egin beharko dira ikasle horiengan nahiz teklatuan bertan.

Mugimen urriko ikasleen curriculum definitu edo egokitzeko honako arlo hauetan duten gaitasun-maila ezagutu beharko da:

- Mugikortasuna (lekuz aldatzea, postura, manipulazioa)
- Komunikazioa
- Interesak, motibazioak eta jarrerak
- Arlo desberdinetan antzematen zaizkien premiak

Manipulazioan, leku-aldaketan eta komunikazioan antzematen zaizkien zailtasunak kontuan izanik, zenbait egokitzapen egin beharko dira helburuetan, edukinetan eta lan-proposamenetan. Hona hemen egin daitezkeen aldaketak:



- Helburu jakin bat lortzeko aurrikusitako denbora aldatzea
- Helburu jakin batzuk kendu edo beste batzuk sartzea
- Helburu eta edukin jakin batzuei lehentasuna ematea, hain zuzen ere beste batzuk lortzeko oinarrizkotzat jotzen direnak
- Hezkuntza-proposamenak erantzuteko gaitasunaren araberakoak izatea, eskolako lana egiteko denbora gehiago eskainiz
- Eskolako lana ikasle bakoitzaren alderdi funtzionalenetan oinarritzea

Ikasleen curriculum-gaitasuna ebaluatzeko beharrezkoa izango da aurretik mugikortasunarekin, posturaren kontrolarekin eta komunikatzeko moduarekin zerikusia duten alderdiak aurretik ebaluatzea. Erabiltzeko gai diren adierazpen-modalitatearen arabera planteatuko beharko dira ebaluazioa eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.

Komunikazio-arloko alderdiak ebaluatzeko ikaslearen adierazmena eta ulermena kontuan hartu behar dira. Beharrezkoa da gainerakoekin komunikatzeko zein adierazpen-modalitate erabiltzen duen jakitea (keinuak, aurpegiaren espresioak, hitzak, bokalak, seinaleak, begien ibilbidea, etab.) egingo den ebaluazioa ikaslearen erantzun-motara egokitzeko, irakaslearekiko elkarreragina ahalbidetzarren. Hala, adibidez, adierazpen-modalitate gisa begiaren ibilbideak erabiltzeko gai den ikasle batek idatzizko hitzak ezagutzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi bada, hitz bat baino gehiago erakutsi diezaiokegu bakoitza kartulina batean idatzita, eta eskatzen zaion hitzean begirada etetea eskatu.

Sistema gehigarriak edo alternatiboak erabiltzen dituzten mintzamenik gabeko ikasleen kasuan erabiliko diren probak egokitu eta laguntza tekniko jakin batzuetara jo beharko da.

Aurreko etapan egindako ebaluazioek eta egokitzapenek informazioa eskainiko digute ikasleak bere ingurunearekin duen harremana zein den eta altzarian eta material didaktikoetan egin behar diren egokitzapen berriak zeintzuk diren jakiteko eta arkitekturaren oztopoak ezabatzeko. Ikaslearen ahalik eta autonomi maila handiena lortzeko, gelan izaten diren egoera desberdinetan posturaren kontrola optimizatzeko baliabideak erabili beharko dira eta gela eta bertako materiala erraz heltzeko moduan antolatuko dira. Leku-aldaketak, komunikazioa, manipulazioa eta elkarreragina errazteko egokitzapenak egin beharko dira.

# Gaitasun handiko ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Zentzu zabalean, gaitasun handiko ikasleak oso talde heterogenoa osatzen dutela eta ondoren adieraziko ditugun arloetako batean edo gehiagotan nabarmentzen direla eta/edo trebetasun potentziala antzematen zaiela esan genezake: trebetasun intelektual orokorra, arlo jakin bat ikasteko gaitasun berezia, pentsamendu produktiboa edo kreatiboa, lider izateko trebetasuna, ikus-arterako edo errepresentaziorako trebetasuna eta trebetasun psikomotrizia. Gaitasun handiko haurren artean, gainerako ikasleen artean bezalaxe, desberdintasun handiak egon daitezkeen arren bi mota generikotan banatuta hartuko ditugu kontuan:

- Trebetasun eta gaitasun ugarian errendimendu intelektual handiagoa antzematen zaien eta edozein arlotan erraz ikasten duten ikasleak. Sormen handia dutelako bereizten dira, eta egiten dituzten lan askotan orijinaltasun handia erakusten dute; horrez gain, zereginetan motibazio eta dedikazio handia antzematen zaie. Ikasle-talde honi buruz “talentu apartekoa” duela esaten da.
- Trebetasun berezia duten ikasleak, oso arlo zehatzetan: ikasketa, matematika, hizkuntza, mugimendu, gizarte, arte, musika, eta sorkuntza-arloetan. Kasu honetan, aurretik aipatutako arloetako batean “talentu berezia” dutela esaten da.

Lehenengo ikasle-taldearen ezaugarri nabarmenenak ondoren adierazitakoak dira:

- Azkar ikasten dute eta gaitasun handia erakusten dute lortutako ezagutzak atxikitzeko eta erabiltzeko.
- Gainerako ikasleek baino informazio gehiago erabil dezakete eta ideiak eta kontzeptuak erraz elkarlotzen dituzte.
- Hizkuntza ondo menperatzen dute ulermenari eta adierazpenari dagokienez.
- Ideia abstraktuen eta konplexuen ulermen-maila handia dute.
- Hiztegi aurreratua erabiltzen dute beren adinerako.
- Trebetasun handiagoa erakusten dute arazoei irtenbidea emateko garaian, eta horretarako estrategia ugari erabiltzen dute.
- Eskola-errendimendu ona dute, baldin eta motibazio, nortasun... arazoak ez badituzte.
- Orijinalak dira adierazten dituzten ideietan eta betetzen dituzten ihardueretan.
- Interes handia eta porrokatua erakusten dute ezagutza-arlo jakin batean eta ahalegin guztiak egiten dituzte arlo jakin horri buruzko informazioa lortzeko.
- Jakinmin handia erakutsi ohi dute eta galdera asko egiten dituzte.
- Interesatzen zaizkien zereginetan oso saiatsuak dira.
- Perfekzionistak eta oso kritikoak dira beren buruarekin eta besteekin.
- Gizarte-trebetasun handiak erakutsi ohi dituzte eta sarritan gelako lider papera betetzen dute.

Talentu bereziak dituzten ikasleei antzematen zaizkien trebetasunetako batzuk aipatuko ditugu ondoren:

- **Gizarte-trebetasuna:** Gizarte-elkarreraginerako trebetasun handia erakusten dute; eragin handia dute taldearen funtzionamenduan; beren adinerako espero ez diren erantzukizunak gain hartzen dituzte.
- **Arterako trebetasuna:** Oso orijinalak dira arte-adierazpenari lotutako ideiak, metodoak eta formak konbinatzeko garaian; aparteko trebetasuna antzematen zaie plastikaren arloan.
- **Ikasteko trebetasuna:** Oso erritmo azkarrean ikasteko gai dira eta oso eskola-emaizta onak lortzen dituzte, horregatik, hain zuzen, aparteko talentua duten ikasleekin nahastu ohi dira; egitura logikoa duten eskola-edukinak azkar ikasten dituzte, baina ez dira aise moldatzen egoera malguagoetan eta ez hain egituratueta, beren sormena beren adineko gainerako ikasleen antzekoa baita.
- **Hizkuntzarako trebetasuna:** Apartekoak dira hizkuntzari lotutako trebetasun eta gaitasun intelektualetan: ulermen eta adierazmen handia, hiztegi zabala, irakurketa eta idazketa, etab.
- **Matematikarako trebetasuna:** Aparteko trebetasuna antzematen zaie matematika ikasteen (zenbaki-sistema, kalkulu-eragiketak, arazoen ebazpena, etab.), gainerako arloetan nabarmentzen ez badira ere.
- **Musikarako trebetasuna:** Aparteko trebetasuna antzematen zaie musika ikasteen, eta horregatik interes handia erakusten dute. Musikarako sen handia dute; txikitandik abestiak eta doinuak diren bezala erreproduzitzen dituzte eta teklatu bat ematen bazaie alde aurretik ikasi gabe melodia bat erreproduzitzeko gai dira.
- **Mugimendu-trebetasuna:** Beren adinekoen artean nabarmentzen dira gorputz-trebetasunetan (bizkortasuna, mugimenduen koordinazioa, etab.). Trebetasun berezi horiek kirolen bat edo dantzaren bat praktikatzeko dutenean antzematen zaizkie.

### ***Hezkuntza-erantzuna***

Gaitasun handiko ikasleak oso desberdinak diren elkarren artean eta, beraz, hezkuntza-estrategia desberdinak behar izaten dituzte antzematen zaizkien ezaugarrien eta hezkuntza-premien arabera. Oker gabilta gaitasun handiko ikasle guztiak curriculumaren arlo guztietan nabarmenduko direla eta proposatzen zaizkien zeregin guztietan interes eta motibazio handia erakutsiko dutela pentsatzean.

Kasu gehienetan, ikasle horiei dagoeneko aurreko etapetan antzeman zaizkie gaitasun horiek eta haientzako hezkuntza-neurriren batzuk ere hartuko ziren. Beraz, hasierako ebaluazioaren prozesuan beharrezkoa izango da informazioa lortzea ikasleari buruz (arloan desberdinetako gaitasun-maila, interesak, ikasteko erabiltzen dituen estrategiak, gizarte-harremanak, etab.) bai eta ordura arte garatutako lanari buruz ere.

Gaitasun handiko ikasleari erantzuteko estrategia orokor desberdinak erabili dira: hezkuntza-mailak bizkortzea edo aurreratzea, gaitasunen araberako taldeak eratzea, ea curriculumaren egokitzea.

Estrategia integratzaileenak erabiltzea komeni da, esaterako curriculumaren egokitzapenak, arazo emozionalak edo moldagabezia sozialari lotutakoak saihestearren. Kasu bakoitzean estrategia egokiena ezartzeko, ezagutzaren alderdiak ez ezik alderdi sozioafektiboak eta nortasun, heldutasun, etab. lotutakoak ere baloratu beharko dira. Gaitasun handiko ikasleei begira curriculumean egokitu ahal izango diren elementuak

gainerako ikasleentzako egokitu ahal izango direnak bezalakoak dira. Hala, aldaketak edo moldaketak egin ahal izango dira honako hauetan:

- Zer irakatsi: helburuak eta edukinak
- Nola irakatsi: estrategia metodologikoak
- Zer eta nola ebaluatu

Curriculum arruntean planteatzen diren helburu orokorre balio dute ikasle horientzat, hezkuntza-etapa jakin batean zehar garatu nahi diren gaitasunen arabera formulatzen baitira. Ordea, hauxe aldatuko da: gaitasun horiek garatu ahal izango diren maila.

Zenbait helburu afektibori eman behar zaie lehentasuna, ikasle horiek honako hauetarako gaitzeko:

- Beren buruaz kontzeptu positiboa garatzea (sentimenduak ulertu eta onartzea; gaitasunak eta mugak, independentzia, etab.)
- Balio jakin batzuk garatzea (gainerakoenganako errespetua, desberdintasunak onartzea, konfiantza eta onarpena)
- Sozializazioa garatzea (gainerakoak errespetatu eta onartzea, gainerakoengan konfiantza izateko gaitasuna, kideekin harreman ona izatea, etab.)

Edukinei dagokienez, har daitezkeen neurriak bi dira: edukinak gehitzea (anpliazio bertikala) edo edukin horietan sakontzea eta horien artean erlazio konplexuagoak ezartzea (anpliazio horizontala). Ikasle horiekin lantzeko estrategia baliagarrietako bat taldeko programaren edukinak gehiago garatzea eta zenbait alderdi sakontasun handiagoz aztertzea edo curriculumaren beste arlo batzuekin erlazionatzea da. Batzuetan, taldeko programaren edukinekin lotura handirik ez duten edukin jakin batzuk landu daitezke ikasle batekin, beti ere bere interesei erantzuten badiete.

Hezkuntza-arloko esku-hartzeak ikasleen lana orientatu behar du, “ikasten ikastea” ahalbidetuko dieten estrategiak lortzen lagunduz, edukinak zuzenean irakatsi beharrean. Ikasle horientzako metodo egokiak honako alderdi hauei ematen diete garrantzia: lan autonomoa, pentsatzen ikasteko trebetasunak menperatzea, esperimendazioa, arazoei irtenbide kreatiboak ematea, disziplina bakoitzari dagozkion metodoak pixkanaka menperatzea, etab. Ikasle horiek oso egokiak dira programa indibidualizatuekin lan egiteko, esaterako: ikaskuntza-proiektuak eta kontratuak, ikasketa independentea, berdinen arteko tutoretza, etab. Funtsean bakoitzaren interesei erantzungo dieten programa indibidualak garatzeaz gain, maila normala edo eurenaren antzekoa duten ikaskideekin batera lanak egitea proposatu behar da. Idatzizko adierazpenak funtsezkoa izaten jarraitzen duen arren, lanak beste formato batzuetan aurkeztera bultzatu behar dira, esaterako: konstrukzioak, frogak, elkarrizketak, grabaketak, artikulatuak, errepresentazioak, etab. Hala, motibazio-maila handia lortu ahal izango da berdinen arteko harremanaren bidez sozializazioa indartzeaz gain.

Hezkuntza-etapa honetan zehar, neurri bideragarri gisa hauxe har daiteke: eskolatzeko aldia murriztea hezkuntza-zikloetako bat ikasturte batean burutuz. Horretarako, beharrezkoa izango da garapen intelektual handiagooa, sormen handiagooa eta zereginetan motibazio eta dedikazio handiagooa erakusteaz gain, heldutasun sozial eta afektibo handiagooa erakustea. Neurri horrekin batera dagokion zikloko curriculum berrantolatua

eta egokitu beharko da, hala curriculum-arlo desberdinen oinarritzko edukinetan hutsunerik gerta ez dadin. Gainera, ikasleak dagoeneko menperatzen dituen edukinak ezabatu behar dira.

Gaitasun handiko ikasleari hezkuntza-erantzuna emateko ikaslea eskolatuta dagoen zikloko irakasle desberdinek batera eta era koordinatu batean ihardun behar dute. Ebaluazio-prozesuetan nahiz curriculuma definitzean, tutorearekin batera, orientatzaileak, dagokien arloetako irakasleek eta laguntzako irakasleek esku hartuko dute. Curriculumua zabaltzeko proiektuen diseinuan eta garapenean, hain zuzen ere lan orokorra eta disziplinar-tekoa eskatzen duten horietan, tutoreak eta dagokien arloetako irakasleek parte hartuko dute.

# Adimen urriko ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Adimen urriko subjektuaren adimen-funtzionamendua nahiko eskasa da batezbestekoaren aldean. Adimen-urritasunaren kontzeptua aldatu egin da azken urteotan: lehen, urritasun biologikoak edo intelektualak dituen subjektuari lotutako zerbait zela uste zen, eta, orain, norbanakoa garatzen den testuinguruaren garrantzia azpimarratzen da, bere eragozpenen argibide gisa.

Adimen-urritasuna ez da norbanakoaren ezaugarri absolututzat hartzen, adimen-funtzionamendu mugatua duen pertsonaren eta garatzen den ingurunearen arteko elkarreraginaren adierazpen gisa baizik.

Izan ere, eragozpen organikoen eta ingurugiroko eragozpenen arteko elkarreraginaren emaitza ikusita jakingo dugu zein den gutxi gorabehera adimen urriko ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien mota eta maila.

Hori kontuan hartuta, pertsonak beren **ingurunearen** barruan dituzten gaitasunak eta funtzionamendua baloratu behar da, hau da, gaur egun edozein pertsona bere bizitzan zehar ondo moldatzeko beharrezkotzat jotzen diren gaitasunen garapena baloratu behar da, hala hobetuko baita horien bizi-kalitatea. Horretarako, komeni da ondoren adierazitako arloetan beren gaitasun funtzionalak areagotzea: komunikazioa, norbere burua zaintzea, etxeko bizitza, gizarte-trebetasunak, gizartean moldatzea, norbere burua zuzentzea, osasuna eta segurtasuna, ikasteko trebetasun funtzionalak, aisia eta astialdia eta, azkenik, lana.

Definizio horrek ekarritako berrikuntza lehen isolatuta kontuan hartzen ziren honako hiru alderdi hauek integratu izana da:

- 1.- **Garapen-aldiarekiko** erlazioa: garapena, faktore organiko, fisiko eta sozialen arabera, kualitatiboki eta kuantitatiboki gero eta konplexuagoak diren forma berrien elkarren segidako lorpen gisa hartuta.
- 2.- **Adimen-funtzionamendua**: Adimena funtsean kontzeptu dinamikoa da, gaitasunei lotua, hau da, norbanakoaren eta bere ingurunearen arteko elkarreraginaren eta harreman funtzionalaren ondorioa da.
- 3.- **Egokitzapen-jokabidea**: Norbere autonomiarako irizpideak betetzeko eta adinari dagozkion betebeharrak eta zereginak betetzeko gaitasuna da. Hau da, testuinguru kultural batean sozialki egokiak eta zereginak eta iharduerak betetzeko eraginkorrak diren jokabide guztiak.

## ***Hezkuntza-premiak***

Adimen urria eta ikasteko zailtasun larriak dituen ikasleak programa berezi bat behar du. Bigarren Hezkuntzaren helburu orokorrak erreferente gisa hartuz, programa horrek orokorrean arrunta izango den testuinguru batean autonomia pertsonal handiagoa lortzea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburu orokorretan aipatzen diren gaitasunak ahal duen guztia garatzea ahalbidetu behar dio.

Adimen urriko ikaslearen hezkuntzan beharrezkoa da eskolaren esparruan ez ezik gizarte eta komunitate-eremuan ahalik eta ondoen integratzea ahalbidetuko dion curriculum bat eratzea. Eta curriculumaren elementu arruntak helburu horretara bideratutako beste elementu berezi batzuekin orekatzea da, izan ere, irakasle-taldearen erantzukizun nagusia.

Hasierako ebaluazioan ondoko hauek hartu behar dira kontuan:

- Aurretik egin zaizkien (Lehen Etapako eskolaldian) Curriculum Egokitzapen Indibidualizatuak (CEI).
- Curriculumeko gaitasunak sistematikoki ebaluatzea, ikasle bakoitzarentzat alderdi funtzionalenak azpimarratuz.
- Testuingurua aztertzeak ingurugiroaren eta pertsonaren aldagaiek elkarrengaitan duten modua hobeto ulertzeko argibideak edo eragozpide nabarmenak aurkitzea ahalbidetuko digu.

Helburuek eta edukinek ikaslearen *adin kronologikora* egokitu behar dute bai eta moldatzen den ingurune desberdinetan aktiboki parte hartzera bultzatu ere, ikaskuntzek esanguratsuak eta funtzionalak izan behar dutela kontuan izanik.

Kasu gehienetan, *lehen etapari dagozkion helburuak* landu beharko dira, baina ikaslearen adin kronologikoari dagozkion interesetara eta premietara egokitutako estrategiak eta materialak erabiliko dituzten lan-proposamenekin, ordea. Beti ere funtzionaltasun-maila handiagoa duten helburuei eta edukinei eman behar zaie lehentasuna. ***Ikaskuntza funtzionalak*** esaten denean ingurune eskari desberdinen aurrean eraginkortasunez iharduteko beharrezkoak diren ikaskuntzak esan nahi da, adin eta kultur talde jakin baterako espero diren autonomia pertsonal eta erantzukizun-ereduen arabera jokatzeko edo iharduteko (Grossman, 1.983).

Gainera, ***aurrikusitako denbora aldatu*** beharko da helburu jakin batzuk lortzeko edo horiek baztertzeko, baldin eta aurretik adierazitako funtzionaltasun-irizpideari jarraitzen badiogu.

12-16 adin-tarte horretan, litekeena da adimen urriko ikasleak 13-14 urterekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloan sartzea, zeren eta aplikatutako Curriculum-Egokitzapen Indibidualizatuaren izaera dela-eta, Lehen Hezkuntzan urtebete gehiago egotea gomendatzen baita, gaixotasun, operazio edo bestelako arrazoi batzurenatik denbora asko eskolara joan gabe egoten direlako.

Aldi hori igaro ahala, gero eta garrantzia handiagoa hartzen du honako trebetasun hauek garatzeak: lan-trebetasunak, ikasteko trebetasun funtzionalak eta etxean eta komunitatean moldatzeko eta aisiako eta astialdiko ihardueretarako trebetasunak.

Azkenik, ikaskuntzak testuinguru eta egoera desberdinetara zabaltzen saiatu behar dugu, hian zuzen ere ikasle-mota honekin izaten den zailtasunik handienetakoa ikasitakoa beste testuinguru batzuetan aplikatzea eta zabaltzea delako.

### ***Hezkuntza-erantzuna***

Helburu nagusienetako bat ikasleak proposatzen zaizkion ikaskuntzetan arrakastea izatea da, bere motibazioa pizteko eta prozesuan modu aktibo batean parte hartzea animatzeko. Estrategia horiek, orokorrean, ikasle guztientzako dira baliagarriak, baina garrantzi handia hartzen duten adimen urriko ikasleentzako kasuan. Horretarako beharrezkoa izango da:

- Iharduerak gaitasun-mailaren arabera planteatzea.
- Edozein errealizazio positibo indartzea txikia bada ere, zereginen aurrean ikaslearen segurtasuna handituz.
- Eguneroko bizitzan baliagarriak izango zaizkion ikaskuntzak planteatzea (ikasuntza funtzionalak).
- Ikaskuntza-prozesuan zehar ondo eta gaizki egindakoari buruzko informazioa ematea.
- Irakasleentzako eta familiarentzako igurikapenak ikaslearengan antzemandako ahalbidetara egokitzea, eta eskakizun-maila bere gaitasunen arabera izatea. Proposatzen zaizkion zereginen aurrean, bere lehentasunak, interesak eta prestutasuna ezagutzea.
- Behar duen laguntza ematea, ikasteko duen estiloari jarraituz, iharduera jakin bat betetzeko edo planteatuko zaion egoera bati irtenbidea emateko.

Adimen urriko pertsonak ebaluatzean honako hauek zehaztu behar dira:

- Lortutako edo lortzen ari den gaitasunen ebaluazio sistematikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arloetako bakoitzean.
- Alderdi psikologiko, emozional, fisiko eta osasunari dagozkionetan dituen ahalmenak eta mugak.
- LBere garapena ahalbidetu edo eragozten duten ohizko inguruneen ezaugarriak. Ikaslea eta testuingurua oinarriztat hartuz egindako ebaluazioa ingurugiroari eta pertsonari buruzko aldagaiek elkarrengaitan duten modua hobeto ulertzeko bidea da.

Testuinguru arruntan integratu ahal izateko, gainerakoak dauden espazio fisikoa berean egoteaz gain ahalik eta modu aktiboenean parte hartu behar du iharduera, ekimen, elkarrengaitan, etab. jakin batzuetan. Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan, aurreko zikloetako edukinak barneratu behar dira, bizitza independenteari eta autonomia pertsonalari buruzkoak, curriculum arruntetik nabarmen aldentuz, eta, gainera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxean alderdi horiek laguntzako irakasleak edo dagozkion arloko



irakaslearekin elkarlanean gela arruntean lantzeko espazio berezi batzuk aurrikusi beharko dira.

Hezkuntza-egoerak anitzak direnez, erantzun anitzak behar dira ikasleen ezaugarri indibidualen arabera. Ikasle horiek gela arruntean izango duten partaidetza-maila honako hauek baldintzatuko dute:

- Ikasleen ezaugarriak
- Ekipamendua
- Baliabideak

Antolamendua era desberdinetan egituratu daiteke:

- Gela arruntaren eta laguntza-gelaren artean denborak banatzea.
- Laguntzako irakaslea gela arruntean sartzea, programa propio batekin nahiz bertako irakaslearekin lankidetzan.
- Alderantzizko integraziorako denborak aurrikustea.

# Autismoa eta bestelako garapen-nahasteak dituzten ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Garapen-Nahaste Orokorrak dituzten ikasleek, autistak izan ala ez, urritasun larriak dituzte beren burua ezagutu, eta gainerakoak nahiz inguruan duten mundua ulertzeari dagokionez. Isolatzeko eta gainerakoekin harremanak saihesteko joera nabarmena antzematen zaie eta horrekin batera jokabide bereziak izaten dituzte, jokabide orokorren edo sozialki halakotzat onartutako horien aldean oso desberdinak izanik.

Hitzezko nahiz hitz gabeko komunikazioaren arloan ere alterazio handiak dituzte, ez dute komunikatzeko asmorik erakusten eta hizkuntza erabiltzean alterazioak antzematen zaizkie, hau da, ez dute hizkuntza erabiltzen edo ez dute behar bezala erabiltzen. Nahaste horiek, kasu gehienetan adimen-urritasunarekin batera agertu arren, hezkuntza-premia propioak dituzte.

Oso interes gutxi eta jokabide inpuitsiboak eta estereotipiak dituzte, hau da, behin eta berriz errepika ditzakete espresioak, keinuak eta/edo mugimenduak. Sarritan, arazo organikoek lotuta agertzen dira, esaterako, epilepsia eta gortasuna, bai eta jokabide-nahaste larriak ere.

Berriazko problematika honek garapen kognitiboan eragina dauka eta, beraz, ikasle horien ikaskuntzaren ezaugarrietako bat generalizatzeko eta abstraitzeko zailtasuna da. Syndrome autista ondoren adierazi bezala garatzen da haurtzaroan:

Jokabide-arazoak gutxitu egiten dira agitazioarekin eta ezegonkortasunarekin batera. Ikasle horiek lasaitzen direnean ohiturak bereganatu eta erabiliko dituzte, baina jokabide konpuitsiboek eta erritualizaziozkoek bere horretan jarraituko dute, aldaketekiko erresistentziak, objektu jakin batzuekiko atxikimenduak eta interes arraroek bezalaxe. Mintzamina dutenek aurrerapenak egiten dituzte eta kasu horietan ekolalia (silaba, hitz edo esaldien ahozko errepikapena) murriztu egiten da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokion 12-16 adin-tarte hori bat dator pubertatearekin eta nerabezeroaren hasierarekin.

Zenbait ezaugarri garrantzi berezia hartzen dute adin horretan. Garrantziaren arabera honako hauek aipa daitezke:

- Harremanetarako arazoak, lan-taldeetan edo aisia eta astialdiko taldeetan integratzeko eragozpide nabarmena izanik.
- Hizkuntzari eta ulermenari lotutako arazoak, autonomia sozialerako eta komunikaziorako traba bat izanik.
- Berriazko zailtasun kognitiboak, adibidez denboraren nozioak eta batez ere kontzeptu abstraktuak distorsionatzen dituztenak.

- Egoera berrietan moldatzeko zailtasunak.
- Ingurune soziala ulertzeko zailtasunak (bestearen sentimenduak, ikuspegiak, etab.) bai eta bere sentimenduak eta egoera emozionalak adierazteko ere.

Ikasle autistaren kasuan, ohizkoa, egunerokoa eta errepikakorra ez den guztiak ez dio gozamenik edo jakinminik eragiten, gainerako nerabeen kasuan ez bezala; aitzitik, kasu askotan angustia sortarazten diote. Beraz, bere ingurunearekin elkarreagin progresiboa eta egokia izatera bultzatuko duten bideak bilatu beharko dira.

Hala eta guztiz ere, nerabezaroa, ohizko oposizioaren eta agintearekiko intolerantziaren agerraldia ezaugarritzat dituen, autistengan ere antzeman daiteke. Sarritan, hiperaktibitatea gutxitu egiten da, batzuetan nolabaiteko apatia eta umorearen bariazio nabarmenei bide emateko. Jokabide-arazoak gehitu egiten dira eta gero eta zailagoak dira kontrolatzen garaiera eta indar fisikoa ere handiagoak baitira.

Aldi horretako konplikazio handiena aurretik inolako sintomarik izan ez duten 11-14 adin-tarteko subjektuengan epilepsi krisialdiak (kasuen %20-%30) agertzea izan daiteke. Krisialdi psikomotoreak dira eta gehienetan adimen-urritasun handiagoa duten autistek izaten dituzte. Ezaugarri horren justu kontrakoa haur normalengan antzematen da, horiek nerabezaroan epilepsi krisialdi gutxiago izaten baitituzte. Hizkuntza ez da ia aldatzen, keinu bidezko adierazpenaren eta hitz gabeko komunikazioaren garapena geldoa da.

### ***Hezkuntza-premia bereziak***

Etapan honetan, hezkuntza-premia bereziak ondoren adierazitako bi eremutan bana daitezke:

- *Hitzezko eta hitz gabeko komunikazioa*: Ingurunearekin komunikazio emozionala edo elkarreagina ezartzeko zailtasunak dituzte. Arrazoi horregatik, hain zuzen, komunikazio-estrategiak eskaini behar zaizkie ingurune fisikoa eta soziala ulertzen laguntzeko eta jokabide-arazoak saihesteko.
- *Autonomia pertsonala*: Beren eguneroko ingurunean ahalik eta ondoen moldatzea lortzeko, norbere portaera kontrolatu eta, horrela, jokabide-arazoak saihestuko dituzte. Elikaduran, garbiketan eta jokabidean oinarritzko ohiturak sendotuz gero, beren ekintzak bizi diren ingurunera egokitu egiten dira, aisialdiarekin eta etorkizuneko lanpostuarekin zerikusia duten zereginak barneratzeaz gain.
- *Eremu kognitiboa eta emozionala*: mundua ezagutzeko estrategiak bereganatu behar dituzte. Horretarako, beharrezkoa da ingurune egituratu bat izatea, beren ekintzak planifikatzen eta, hala, beste pertsona batzuekiko eta gertuko ingurunearekiko harreman normalizatua indartzen laguntzeko, gertatuko dena iragarritz. Eremu kognitiboan, zailtasun larriak dituzte ikasitakoa generalizatzen, pentsamendua konkretua da

eta hobeto moldatzen dira berehalako egoeretan. Zailtasun bereziak dituzte pertzepzio, oroimen eta arretari dagokienez, bai eta imitatzeko garaian eta prozesu sinbolikoetan ere.

- Eskolatik behar duten *berariazko laguntza-mota*, hau da, gela egonkorra, laguntzako irakaslea edo gela arruntaren antolamenduan bestelako neurri bat kontuan hartzea, honako arrazoi hauengatik da:
  - Arreta indibidualizatua eta ingurune egituratu bat behar dute, bai eta zereginak egiteko laguntza eta gainbegiraketa sarria ere.
  - Gainera, komunikazio gehigarria eskaini behar zaie ingurunea ulertzen laguntzeko.

Hitz gutxitan esanda, autismoari lotuta pertsonengan ezaugarri amankomunak agertzen diren arren, desberdintasun indibidualak gainerako populazioarenak bezalakoak dira eta, beraz, ebaluazio indibidualizatua eta disziplinar-tekoa arreta handia jarriz egin beharko da, honako hauek zehaztearren:

- Ikaslearen autismoaren jatorria eta ezaugarri pertsonalak, bere egoera afektiboa, adimen-maila eta komunikaziorako eta sozializaziorako gaitasuna kontuan hartuz.
- Ohiko garapenak eta curriculum arruntak eskainitako erreferentzi esparrua.
- Bizi den inguruneen azterketa.
- Familiaren eta ikaslearen beraren beharrak eta nahiak.

### ***Hezkuntza-erantzuna***

Ikastetxe arrunt bateko *gela egonkorra* integrazio-denbora gehigarriekin batera hezkuntza-erantzunaren muina izan daiteke, bertan baliabide-mota jakin bat eta hezkuntza-arreta berezia behar duten ikasleak elkartzen baitira.

Ikaslearen *curriculum*a honako irizpide hauek kontuan hartuz landu behar da:

- Autismoa duen ikaslearen hezkuntz-premia berezien esparruan oinarrituz, lehendabizi ondoren adierazitako irakaskuntza eta ikaskuntza hauek planifikatu beharko liriteke: komunikaziorako trebetasunak, ulermenerako eta elkarreragin sozialerako estrategiak, pertzepzioaren garapena, imitazioa, autonomiarako eta ingurunean moldatzeko eta eguneroko bizitzako arazoek ebazteko trebetasunak.
- Hezkuntza-premia bereziak ez dituzten pertsonen bizimoduaren ahalik eta antza handiena duena ahalik eta modu autonomoenean eta ingurune zabalenean eramaten lagunduko dieten trebetasunen irakaskuntza planteatu behar da, hain zuzen ere adin kronologiko bereko pertsonekin elkarreraginean aritzeko.

- Trebetasun funtzionalak irakastea, independente bizitzeko beharrezkoak baitira.

Ikaskuntza-egoerek gertatuko dena ulertu eta iragartzeko moduan egituratuta egon behar dute. Estimuluak eta ikaskuntza-iharduerak ondo egituratu behar dira, horrek ez duelarik zertan zurruntasuna ekarri behar.

Une aproposa da elkarreragin sozialak lantzeko, nahiz eta lagunarteko edo sexu-harremanen kontzeptua bereganatzeak zailtasun handiak ekarri, intimitatearen ideia nekez uler baitezakete.

Haur autisten portaeren jatorriari buruz dauden ezagutza berriei esker, eremu kognitiboan batez ere, berariazko hezkuntza-metodoak landu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da haur horiek eguneroko bizitzan izaten dituzten zailtasunak kontuan hartzea:

- Gaitasun kognitiboen heterogenotasuna, eremu sozialean eta hitzezkoan iharduerak urriak izanik, baina oroimena, orientatzeko sena eta koordinazio bisomotrizza bezalako eremuetan maila ona erakutsiz.
- Hizkuntza abstraktua eta unibertsala ulertzeko ezintasuna.
- Gizarte-egoera aldakorren aniztasunera moldatzeko ezintasuna.
- Denboran eta espazioan gertatzen diren aldaketekiko intolerantzia.

Eskola-programak ulermena ahal den guztia erraztera bideratutako printzipio nagusi batzuen inguruan egituratzen dira, hori ezinbestekoa baita ikaskuntza lortzeko. Printzipio horietako bat hitzezko komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea da. Adibidez:

- **Keinuak** erabiltzea
- *Laguntza bisualak*. Irudien bidez objektuak, pertsonak edo zereginak adierazten dira, eta kasu askotan aparteko oroimen bisuala aprobetxatzeaz gain hitzak baino esanguratsuagoak dira.
- *Objektu* konkretuak erabiltzea.

Denboran eta espazioan segurtasuna eta egonkortasuna aurrirusteko landuko diren unitateen sekuentziatioaren egiturak zehatza izan behar du.

# Gizarte eta famili ingurune kaltetuei lotutako HPBak dituzten ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Ikasle horien HPBak, alde batetik, menperatzailea ez den kultura batekoak izateagatik (errefuxiatu ekonomikoak, talde etniko desberdinetakoak) eta, bestetik, kultura menperatzailekoak izan arren, berezko kultura duen ingurune marginal batekoak izateagatik sortutakoak dira, eskola-ingurunean nagusi diren balore kulturaletatik aldentzen diren balore, ohitura eta elkarreragin sozialen eredu batzuk garatu dituen kultura batekoak izateagatik, hain zuzen.

Gerta daitezkeen zailtasun horiek ez daude edo ez daude bakarrik subjektuaren baitan, subjektu/ingurune elkarreraginaren baitan baizik. Ikastetxeak kultura, estilo, ohitura eta interes anitzak biltzen dituen eta horiek askatasunez adierazten uzten dituen neurrian, eta gelako programazio egokitu bat duen neurrian, premia horiek bereziak izateari utzi eta hezkuntza-premia bilakatuko dira.

Bestalde, problematika sozial jakin batzuek zailtasunak sortarazten dituzte edo ikasle batzuen garapen pertsonalean tartekatzen dira. Abandono fisiko edo psikologikoak, tratu txar fisiko edo psikologikoak, sexu-erasoak, drogamenpekotasunak, etab. dakartzaten ondorioek, adibidez, batzuetan Bigarren Hezkuntzan zehar dira eta eskola-errendimendua nabarmen jaitsiarazten dute. Ikastetxeak arazo horiez jabetu behar du eta neurri egokiak hartu behar ditu horiek bideratzeko, beste zerbitzu sozio-komunitario batzuekin harreman estuak ezarriz eta haiekin elkarlanean arituz, esaterako: osasun-zerbitzu, famili plangintza, gizarte-laguntza, astialdiko monitore, etab. rekin ikasle horien ongizatea bermatzearen, zereginen banaketa argia eta erakundeen arteko koordinazio egokia ezarriz. Kasu batzuetan ondoren adierazitako ezaugarriak antzeman daitezke:

- Gaixotasun psikosomatikoak
- Ikasteko arazoak
- Autoestimazio falta
- Gaitasun eta trebetasun urria egoera gatazkatsuen aurrean
- Heldutasun sozio-emozionalik eza (oso heldutasun gutxikoa edo helduegia)
- Harreman sozial urriak edo gatazkatsuak

Famili eta gizarte-egoera baten biktima diren ikasle-mota honek agintearen aurrean amorrarioa eta gaitzespena erakusten du, eta horren ondorioz, batzuetan, jokabide agresiboak sortzen dira. Eskola-errendimenduan zailtasun handiak izaten dituzte, baina kezka handiena aginteari egindako desafioak, izaten dituzten erantzun gogorak edo irakasleekin izaten dituzten borrokak dira.

Egoera horien aurrean, ikastetxeak honela ihardun behar luke:

- Aurrena erasoak berriro gerta ez daitezen saiatzea eta arazoaren kronifikazio-prozesua etetea.

- Arazo zehatzei eta iharduerarako irizpideei buruzko informazio zehatza izatea, arriskuaren balorazioa egitea eta kasu bakoitzerako egokienak diren iharduera-mekanismoak martxan jartzea.
- Ikaslearekin beti kontu handiz jokatzeko, alferrikako galderak egin gabe eta konfidentzialtasunaren irizpidea ahal den guztia errespetatuz.

Funtsezkoa da adin horretako ikasleen gizarte eta famili ingurunea alde zuzenetik ezagutzeko ikastetxea dagoen lekuko gizarte eta lan-problematika ulertu eta ezagutzeko. Gainera, ikaslea norbanako eta gelako kide gisa baloratu behar da.

### ***Hezkuntza-premia bereziak***

Desabantaila sozioekonomiko eta kultureko egoeran dauden ikasleengan antzematen diren zailtasunak honako hauek izan ohi dira:

- Ez dituzte arauak eta hezkuntzaren helburuak ezagutzen: autokontrol-mailak kontrolatzeko eta beharrak beranduago betetzeko gaitasunak ez datoz bat ikasleek familian ikasi dituzten ohiturekin eta arauekin. Bestalde, ikaskuntza manipulatzailerik eta zehatz batera ohituta dagoenak ez du ulertzen zertarako balio dezaketen irakasten zaizkion edukinak, konplexuagoak eta abstraktuagoak direnez ez baitira batere esanguratsuak.
- Hizkuntza akademikoa ulertzeko zailtasunen aurrean, egoneza eta mugitzeko edo ihardueraz aldatzeko beharra erakusten dute, familia gehienetan ez baitituzte horretara adoretu.
- Abstrakzio-prozesuetan zailtasunak dituzte, ez baitirudi edukinek lotura argirik dutenik beren ezagutza-eremuarekin.
- Lorpenak egiteko motibazio falta eta autoestimazio urria. Ez dute uste emaitzak aldatzeko gai direnik eta gainera ikasteko behar den motibazioa falta zaie.
- Aldez aurretik ez dute ohiturarik edo ezagutza-eskemarik eskola-arazoei aurre egiteko, zeren eta horiek beste norabide batean garatu baitira. Hori eskola-giroan moldatzeko eragozpen eta bertara ez joateko arrazoi bihurtzen da.

### ***Hezkuntza-erantzuna***

Ikasle-mota honen hasierako ebaluazioan garrantzi handia hartzen du ondoren adierazitako alderdi hauek barne hartzen dituen testuingurua ebaluatzeak:

- Bere talde etniko edo sozialari dagozkion usadioak, ohiturak eta elkarreraginerako ereduak.
- Testuinguru horretan nagusiki garatzen diren gaitasunak edo alderdiak.
- Bere interesak.
- Irakasleekin eta ikasleekin elkarreragiten duen modua.

- Bere premiak
- Identifikazio-ereduak

Praktikak adierazi bezala, etnia eta kultura desberdinetako ikasleen errendimendua handiagoa izaten da kasu hauetan:

- Irakasleak errespetatu egiten du ikasle horien kultur eta hizkuntz jakinduria eta pertsonalki adierazten die sentimendu hori.
- Eskola-eremuari gehiago dagozkion esperientziak eta pentsamoldeak azaltzeaz gain ikasle horien esperientziak hasieratik kontuan hartzea eta horiekin lan egitera bultzatzen duen curriculumak arrakastatsuenak izan daitezke.
- "Ikastetxearen kulturari" dagozkion oinarriak, igurikapenak eta ihardunbideak era esplizitu eta zehatz batean azaltzen zaizkie.

Komeni da ikasle horien esperientziak eta ezagutzak, eta gehien garatu dituzten gaitasunak oinarritzat hartzea, horietatik abiatuta beste batzuetara heldu ahal izateko.

Komeni da helburuak epe laburrera ikustea, eta ikaskuntzen esanahia haietzako ezaguna izatea. Horregatik, malguak izan behar dugu edukinak aukeratu eta sekuentziazteko garaian, ikasteko dituzten estiloen, premien eta interesen behaketak eskaintzen dizkigun datuetan oinarrituz.

Prozedurazko edukinak ikastea, pentsatzen irakastea, egoerei aurre egitea, arazoei irtenbidea ematea, etab. oinarritzko eta lehentasunezko ikaskuntzak dira ikasle horien kasuan.

Eskolak alde aurreko eskakizun gisa ikastea proposatutako jarrera, ohitura, arau eta baloreen inguruan gogoeta egin eta egokienak ote diren planteatu beharra dago. Gainera, zailtasunaren arabera planifikatu eta mailakatu behar dira. Eta berriro ere azpimarratu nahi dugu ikasleek dakarten kultur eta hizkuntz jakinduria errespetatzea funteskoa dela.

Onera hezkuntza-estrategia ugari eskueran izatea da, ikusita baitago eskola-desabantailan dauden ikasleen errendimendua handiagoa dela irakaskuntza aberatsa eta berria eskaintzen zaienean eta irakasleek aplikazio didaktiko desberdinak eraginkortasunaren arabera txandakatu ahal izaten dutenean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gaitasunak lortzea helburu izanik.

Estrategia horietako bat indibidualizazio-metodoak elkarlanarekin txandakatzea da, arazo akademikoei irtenbidea emateko. Autoestimazioa eta eskolaketaren interesa handitzeko modu bat da, horrela gertatzen baitira lorpen kognitibo gehienak: ikaskuntza esanguratsuagoak eta adimen-egitura malguagoak.

Litekeena da ikasle horiek Lehen Hezkuntzaren etapan curriculum-egokitzapenen bat izatea, etapa horretako helburu batzuk lortu ez direlako, alegia. Gainera, Derrigorrezko



Bigarren Hezkuntzaren arlo akademizistenei dagozkien edukin jakin batzuk egokitzea pentsatu beharko da.

Zirkunstantzia jakin batzuetan, beharrezkoa izango da ikaskuntza batzuk laguntza-gelan egitea. Beste kasu batzuetan, bestelako antolamendu-formulak asmatu beharko dira, esaterako, talde malguak sortzea, denbora mugatu batzuetan iharduera zehatz bat betetzeko bilduko direnak.

Berez eskola-eremuko den erantzunaz gain, kasu batzuetan eta hasieran adierazitako problematikak direla-eta, beharrezkoa izango da beste zerbitzu batzuekin koordinazio-bideak ezartzea, hau da, gizarte, osasun, astialdi... arloetako zerbitzuak, kasuan-kasuko arazoaren arabera.

# Ikusmen urriko ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Ikusmen-urritasuna bi talde nagusitan bana daiteke larritasunaren arabera: hauritsuak, ikusmenik ez dutenez ingurunearekin gainerako zentzuen bidez harremanak izango dituztenak, eta oso ikusmen urriko haurrak, estimulazio egoki baten bidez ikusmen funtzionala garatzea lortzen dutenak. Itsuak ez du batere ikusmenik eta argia bakarrik antzeman dezake.

Ikusmen urriko pertsonak ikusmenaren bidez masak, koloreak eta formak antzematen dituzte, urrutitik ikusteko arazoak dituzte, baina gertuko -zentimetro batzuetara edo gehienez metro gutxi batzuetara- objektuak eta materialak bereizteko eta identifikatzeko gai dira. Geratzen zaien ikusmen horri esker kartel handiak irakur ditzaketen arren ezin dute tinta normalean irakurri. Ikusmen urritasunean maila ugari barne hartzen dira eta, beraz, urritasun horretatik sortutako premiak ere ugariak dira.

Hezkuntzaren ikuspegitik, itsua irakurri eta idazteko Braille sistema erabiltzera behartuta dagoen eta ezagutza-maila desberdinak lortzeko gehienetan ukimenera jotzen duen ikaslea da. Ikusmen urriko ikaslea eskolan Braille sistema erabili behar izaten ez duen baina tintan irakurtzeko eta curriculum arrunta jarraitzea ahalbidetuko dioten berariazko trebetasunak eta gaitasunak bereganatu eta garatzeko baliabide materialak, laguntza optikoak, elektronikoak, etab. behar dituen ikaslea da.

Jakina, ikusmenik ez izateak eragina izango du garapen psikosozialean, kanpoko mundua ezagutzeko hain garrantzitsua den zentzu hori gabe arazoak sortzen baitira; estimulazioa -laguntzarik jasotzen ez badu- inguruko espazioan bere ikusmen-eremuak hartzen duen guztia aztertzeke eta ukitzeke gaitasunera mugatuta geratzen da, eta bere ingurunea kontrolatu eta harekin harremanak izateke soinuen identifikazioa erabili behar du. Muga horiek eragin handia dute jasotzen duten informazio-kopuruan eta informazio hori lortzeko moduan, eta hezkuntza-arloko esku-hartzean kontuan hartu behar dira, pertsonak ikusmenaren eta entzumenaren bidez zatika jasotzen duen informazioa osatu eta antolatzen saiatu behar baikara.

Bere ingurunearekin harremana izateke beharrezkoak diren baldintza horiek batzuetan pasibitate handia eragiten dute, estimulazio faltagatik (ikusmenari ez dagozkion estimuluak ezin dira halakotzat hartu eta, beraz, ez dute erantzunik sortarazten). Premia hori irakasleak “konpentsatu” behar du, ikasleak mugimenarekin eta gaitasun espazialarekin antzeman ditzakeen estimuluak aurkeztuz eta inguratzen duten objektuen eta espazioaren errepresentazio mentalak egiten lagunduz. Ezinbestekoa da hezitzaileek hitzeko informazioak beren esperientzia sensorialak adieraziz ematea, ikusten edo ukitzen ari diren hori zer den eta nolakoa den azalduz eta ikusmen-estimuluak entzumen-estimulu bihurtzen saiatuz, xehetasunen inguruko ideia orokorra eta batzuetan aberatsa lortuko baitute horrela.

Irakasleak kontuan hartu beharreko informazio-iturria ikusmen urriko ikasleak ikaskideekin duen harremana behatzea izan daiteke, bai eta taldeko/gelako kide eskolaketa osoan zehar edo aldi batean izan ote den jakitea ere.

Bestalde, ikaslea taldean berria denean irakaslearen jokabideak, aholkularitza egokiarekin batera, baliagarriak izango dira berdinaren arteko harremanak ezartzeko. Hori oso garrantzitsua da, zeren eta premiak elkarreragileak direla eta testuinguruak premia horiek gehitzen edo gutxitzen lagun dezakeela onartzea esan nahi baitu horrek.

Ikusmen urriko ikasleengan, bereziki zerbait ikusteko gai diren horiengan, sakabanaketarako eta hiperaktibitatearako joera antzeman daiteke. Ditutzen pertzepzio-arazoez eraginda, oso zaila zaie ikusten duten horri esanahia ematea, eurentzat ezertxo ere adierazten ez duten gauzak topatzen baituzte, eta informazio zatikatua lor dezaketen zerbaitetaz interesatzea zaila denez, egoera horrek ezinegona sortu eta sakabanatu egin daitezke gauza batetik bestera mugituz motibatuko duten zerbaiten bila. Antzeman dezaketen horretan oinarrituz interpretatzeko gaitasuna gero eta handiagoa izan, orduan eta urriagoak izango dira jokabide horiek.

Litekeena da hezkuntza-etapa honetako adinetan, oso ikusmen urriko haurrek pertsona helduekiko gainerako ikasleek baino askoz ere menpekotasun handiagoa izatea. Alde batetik, egoera hori ikusi ezin dutena beste pertsona batzuek erakusteko eta hobeto ezagutu, interpretatu eta integratzen irakasteko benetako premiak eragindakoa da, baina, bestetik, behar duten laguntza-maila pertsona helduek beren garapenean zehar erakutsitako jarreraren eta eskasinitako laguntza-motaren arabera izango da. Hala, zereginak askotan beste batek egin dizkionean, euren menpekotasun-maila handia izango da, eta jarrera laguntzazkoa izan bada baina gauzak eurei egiten utzi badiete, lortutako autonomi maila handiagoa izango da. Litekeena da lehen zikloan oraindik menpekotasunezko jokabide nabarmenik ez antzematea.

Adin horretan ikasleak itsuek eta ikusmen urrikoek gainerako ikaskideek bezain besteko gogoak dute gauzak ezagutu eta ikasteko, eta horregatik komeni da ingurune guztiak beharrezko erreferenteak ezagutu eta erabiltzea informazio hori ikasle horiek ere lortu ahal izateko, dituzten pertzepzio-ahalbideen arabera baldin bada ere.

### ***Hezkuntza-premia bereziak***

Hezkuntzaren ikuspegitik premiak honako hauen arabera izango dira: ikusmen-urritasunaren maila, ikusmenik geratu edo ez geratzea, eta ikasteko eta gizartean moldatzeko geratzen zaien ikusmen horren funtzionaltasuna.

Ikuspegi funtzionalaren arabera ikaslea itsu gisa baloratu denean, irakurketaren irakaskuntza/ikaskuntzaren prozesua Braille sistemaren bidez egingo da.

Ikusmen urriko ikasleei dagokienez hartutako erabakia askotarikoa izan daiteke (tinta, Braille) eta beren ikusmenaren funtzionaltasunari buruz aholkulariek egindako balorazioaren arabera izango da. Ikasle horiengan haxe antzemango dugu: batzuek zeregin bisual lodiak betetzen dituzte zailtasunekin bada ere, eta ez dituzte xehetasunak antzematen. Beste batzuek zeregin bisualak bete ditzakete hutsegiteekin bada ere, eta denbora egokitu, laguntzak eskaini eta batzuetan zereginak aldatu behar zaizkie. Hirugarren talde batek ikusmen normala duten gainerako ikasleentzako iharduera bisualak egin ditzake, laguntzak eta argi egokia erabiltzen baditu.

Orokorrean, ikusmen urriko pertsonen ondoren adierazitako ikusmen-alderdiak antzemateko zailtasunak dituztela esan daiteke: espazioko ezaugarri desproporzionatuak, hiru dimentsioko errepresentazioak, forma osatuak, sakontasuna, mugimendua, antzeko koloreko hondoen aurrean kokatutako objektuak edo materialak, argi gutxiako objektuak, formen eta irudien barruko xehetasun bereizgarriak.

Pertsona itsuen eta adimen urrikoen premia bereziek, alde batetik, curriculum arrunterako sarbide desberdinei lotutako hezkuntza-erantzunak eta, bestetik, ikusmenaren zentzu alternatiboen laguntzarekin (erantsitako berariazko curriculum) moldatzeko trebetasunen eta gaitasunen etengabeko trebakuntzari eta garapenari lotutakoak behar dituzte.

Ondoren, klasean ikusmen urriko ikasleren bat duen irakasleak egin ohi dituen galdera batzuk erantzuteko argibideak adierazten dira:

- Gerta daiteke haurrak betaurrekorik ez eramatea, horiekin ez baita beti ikusmen-urritasuna zuzentzen edo hobetzen. Errefrakzio-akatsak lente zuzentzaileak erabiliz konpon daitezke, baina, haur horien ikusmen-urritasuna handia izan ohi denez, sarritan zuzenketa horrek ez du ikusmen normala lortzea ahalbidetzen. Bestalde, betaurreko batzuek kristal ilunak dituzte besterik gabe, haur fotofobikoek hobeto ikus dezaten.
- Liburuak begietatik gertu jartzea ez da kaltegarria, eta haur batzuentzako modu bakarra izan daiteke inprimitutako karaktereak enfokatzeko. Begiak ez dira nekatzen betaurrekoak edo ukipen-lenteak erabiltzeagatik.
- Ikusmena ez da “kontserbatzen” ez erabiltzeagatik edo ez behartzeagatik; beraz, beti animatu behar da haurra ikusmena erabiltzera. Gertutik ikusteko begiak gehiegi erabiltzeak ez du miopia sortarazten.
- Argi leunak ez die begiei kalterik egiten. Badira haurrak argi gutxiagorekin hobeto ikusten dutenak, esaterako, albinoak.
- Begi bateko ikusmena galtzeak ez du esan nahi ikusmenaren %50 galdu denik. Afektatutako begian galera izan arren eta pertzepzio sakona deitutako horren galera orokorra gerta arren, hori ez da interpretatu behar ikusmen-sistemaren erdia galdu balitz bezala.
- ”Itsu” gisa erregistratutako populazioaren %10 baino gutxiago da itsua erabat. Askori ikusmen arrastoren bat geratzen zaie eta beste batzuk argia antzemateko gai dira.
- Ikusmen urria izateak ez du esan nahi gainerako zentzuak, adibidez entzumena eta ukimena, oso garatuta daudenik. Beste kontu bat da ikusmen-urritasunak zentzu horiek modu jakin batean erabiltzera bultzatzea, erabilera hori irakatsia eta ikasia izanik.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

### ***Curriculuma: ezaugarri bereziak eta egokitzapen-mota***

Ikusmen-zehaztasunaren eta eremuaren ebaluazioa oftalmologo batek edo pertsona kualifikatu batek egingo du, eta horrez gain bere lana honako hauei buruz informatzea izango da: ikusteko laguntza teknikoen beharra, argiaren intentsitate-maila, zenbait gorputz-ihardueraren ezegokitasuna, etab.

Ikusmen funtzionalaren ebaluazioa Itsuentzako Baliabideen Zentroko profesional batek, hain zuzen ere, ikusmen-urritasunean prestatutako aholkulari batek egingo du. Zonako Talde Multiprofesionalarekin eta ikastetxearekin koordinazioan, garapen sozial, kognitibo eta intelektualari buruzko zenbait alderdi jaso, egokitzapenetan parte hartu eta ikaskuntza-arlo gehigarriak baloratuko ditu (mugikortasuna, eguneroko bizitzako iharduerak eta autolaguntza, etab.):

- Orientazioari eta espazioaren ezagupenari lotutako trebetasunak (non dagoen jakitea, lekuak ezagutzea eta horietan orientatzea) gero eta espazio zabalagoetan eta gero eta autonomi maila handiagoaren arabera, leku-aldaketari lotutako trebetasunak (ibiltzea, ezagutzen duen eta ezagutzen ez duen espazio batean mugitzea) eta mugikortasunari lotutako premien jarraipena (oreka garatzea, mugitzeko segurtasuna, mugimenduaren koordinazioa, posturaren kontrola, etab.).
- Eguneroko bizitzako autonomi mailaren jarraipena (higiene pertsonala, elikadura, testuinguru desberdinetan leku-aldaketa autonomoak).
- Komunikazio-arloko lorpenen jarraipena (ahozko mezua behar bezala laguntzea, egoeraren arabera keinu egokiak egitea, hitz egiten duenari begiratzea, etab.).

Gainera, laguntza teknikoen erabilerari buruzko gomendio medikoen jarraipena egingo du.

Ikusmen urriko ikasleengan berariazko helburu eta edukin batzuk bete behar dira planteatzen dituzten hezkuntza-premia bereziei erantzuteko. Ikasle horientzako berariazko curriculuma hiru multzotan banatzen da:

#### ***a) Orientazioa, mugikortasuna eta trebetasunak eguneroko bizitzan***

- Ikaslea gero eta zabalagoak eta ohizkoagoak diren inguruneen barruan era autonomo batean lekuz aldatzea lortzea. Horretarako, pertsonal espezializatuak esku hartu beharko du, eta horien lana bi etapatan garatuko da: haurra espazio itxietan orientatu eta mugitzeko trebakuntzan jarraitzea, eguneroko ingurunean lekuz aldatzea eta bastoia erabiltzea.
- Antolamenduari eta ordenari dagokienez gero eta autonomi maila handiagoa lortzea.

- Gizarte-trebetasunen garapenerako eta pertsonarteko harremanetarako ihardunbide hauek sakontzea: norbait hitz egiten hasten zaionean begiak eta burua altxatzea, aurpegia solaskidea dagoen lekura zuzentzea, etab.

*b) Ikusmenaren trebakuntza*

- Ikusmena hobetzea, ikusmenari lotutako esperientziak sortuz eta/edo eguneratuz eta ikasleari bere oroimenean bildu ditzan lagunduz. Antzeman dezakeen horretan oinarrituz ondorioak ateratzeko interpretazio-klabeak emateko etengabeko irakaskuntza behar da, estimuluak ez baitira beti berak.

*c) Teknikak ikastea eta material bereziak erabiltzea*

- Ikasle anbliopea, ikusmen-mailaren arabera, aparatu optiko desberdinen erabileran trebatzean, geratzen zaion ikusmena ahal den guztia aprobetxatzearen eta funtzional bihurtzearen.
- Beharrezkoa denean Braille sisteman edo bestela tintan ulermenezko irakurketa eta idazketa garatzea, azken kasu honetan karakterak handituz eta aparatu optikoak erabiliz.

*d) Curriculum arrunterako sarbideak*

Curriculum-egokitzapenak kasu askotan ikasle itsua edo ikusmen urrikoa curriculum arruntean sartzeko beharrezkoak izango diren aldaketei lotutakoak izango dira, eta ikasle horiek dituzten premiei egokitutako bitartekoak erabiliko dira. Erabiliko den funtsezko estrategia ikasgelako materialetan beharrezko egokitzapenak egitea izango da, informazio horretara ikusmen normaleko gainerako ikasleak bezala heltzeko. Horretarako, ikasle horiek honako trebakuntza hauek beharko dituzte:

- Teknika batzuk menperatzea (erliebiko mapak ezagutzea, ikusmen-estimuluak ukimen-estimulu bihurtzen dituen material tifloteknikoa erabiltzea, hizketa bidezko liburuak erabiltzea irakurri ordez entzuteko, etab.).
- Eskueran dauden baliabide berrien erabilpenean eguneratzea (egokitutako ordenadoreak: ahotsarekin, handitutako karakterekin, etab.).

Beraz, beharrezkoa izango da material eta baliabide didaktikoetan (ukimen, entzumen... estimuluak zabaltzea.) bai eta irakasleen irakaskuntza-estrategietan ere egokitzapenak egitea ikasle horien ikaskuntza-premien arabera (estimuluak bihurtzea). Zenbait kasutan irakurketa eta idazketa-sistema alternatiboak erabiliko dira (Braille) bai eta erliebiko materialak, etab. ere, informaziora ikusmen normaleko gainerako ikaskideak bezala heltzeko. Horretarako, irakasleek Itsuentzako Baliabideen Zentroko profesionalen aholkularitza jasoko dute, irakasleek garaiz aurkeztu beharko dieten curriculum-material programatua bihurtzeaz eta, beharrezkotzat jotzen denean, ikasleei arreta zuzena eskaintzeaz arduratuko baitira.

Irakasleek, beharrezko aholkularitzarekin, ikasgela antolatzekeo garaian ondoren adierazitako faktoreak kontuan hartu beharko dituzte:

- Argi naturala eta artifiziala

- Gelan ikaslea non jarri zehaztea
- Objektuen kokapena
- Seinale bisualak izatea

Ikaskuntzei dagokienez, nahiko laguntza behar izango dute honako hauek bezalako zailtasunak dituztelako:

- Ezinezkoa zaie testuaren lerroak begiarekin jarraitzea.
- Ezin dute hitza osorik ikusi, ikusmen-eremuan dituzten arazoengatik. Tutu batetik begiratuko balute bezala ikusten dute.
- Karakteren tamaina edo paperarekiko kontrastea ez dira egokiak.
- Ingurugiroko faktore batzuk, esaterako argia, ez dira egokiak.
- Ikusteko erabiltzen duten laguntza teknikoak murriztu egiten die ikusmen-eremua, ikus dezaketen letra-kopurua murriztuz.

Ikusmen urriko haurraren irakurketa-erritmoa, ia gehienetan, ikusmen normaleko ikaskideena baino askoz ere geldoagoa da, ikusmenaren bidez baina zailtasunekin edo ukimenaren bidez antzemandako informazioa lantzeak berekin dakartzan arazoak direla-eta (begiratu batez bi edo hiru karaktere edo hitzez hitz -oso motzak direnean- irakurtzeak informazioa lantzeko prozesua asko trabatzen du eta aurrea hartzea eragozten du gehienetan).

Funtsezkoa da ikusmen urriko pertsonak idazketa-teknika on bat garatzea prestakuntza-arloko zenbait trebetasunetan oinarrituz, eta edozein estilo-akats aztertu eta zuzentzea. Ikusmen urriko haurrak askoz ere ordu gehiago behar ditu mugimendu arin bat lortzeko, eta irakaskuntza indibidualizatuetera jo behar da hizkiak eratzeko teknika egoki bat sendotzearen. Lehen Hezkuntzan trebetasun horietan egindako ahaleginak etapa honetako premiak zehaztuko ditu. Ikusmen urriko haurrak, beste edozeinek baino gehiago, kaligrafia argia garatu behar du gainerakoek eta batez ere berak erraz ulertzeko moduan, eta kaligrafia hori ebaluatzeko irizpideak funtzionaltasunean oinarritu behar du, ez ordea estetikan.

Irakurketarako, batzuetan, nahikoa da inprimatutako karakterak handitzea ikusteko baldintzak nabarmen hobetzeko. Hori lortzeko modu egokia ikusteko laguntza teknikoren bat erabiltzea da, esaterako, testuaren fotokopia behar den neurriraino handituz.

Gainera, arreta handia jarri behar da inprimatutako karaktereen kalitatean eta batzuetan kopuruan. Kalitatea karaktereen tamainak eta koloreak eta paperarekiko kontrasteak zehazten dute.

Testu bateko lerroak jarraitzeko erabiltzen diren markatzaileak eta erregelak beharrezkoak edo laguntza handikoak izan daitezke oraindik hitz edo lerro jakin bat enfokatzeko zailtasunak dituzten haurrentzat. Ikusmen urriko pertsona batek beti ikusmen normaleko pertsona batek baino denbora dexente gehiago beharko du luzera bereko testu bat irakurri edo idazteko. Ereku akademikoan hori da beharbada, hots, abiadura, ikusmen urriko ikaslea ikusmen normaleko ikaslearengandik gehien bereizten duen ezaugarria.

Ikusmen urriko haur askok erabiltzen dute laguntza-motaren bat objektua handituta ikusi ahal izateko: osagarri gisa lente teleskopikoak dituzten betaurrekoak, teleskopio eramangarriak, binokularrak, lupa finkoak edo eramangarriak, argia duten lupak, telebistako zirkuitu itxiak, etab.

Irakurritakoa gutxi ulertzen denean, arrazoia zeinuaren deskodeketa okerra edo geldoa baino gehiago “munduaren” ezagutza eskasa ez ote den baloratu behar da (estimulazio faltagatik, adibidez), hau da, hitzak testuinguru jakin batean duen esanahia ez jakitea.

Oso ikusmen urria edo itsutasuna duten baina urritasun asoziatuak ez duten ikasleentzako, lehen esan bezala, beren premiei erantzuneko dien curriculum-egokitzapen indibidual bat beharko da, curriculum arruntera sartzeko bitarteko edo baliabide guztien gainean eragina izango duena.

Irakaskuntza/ikaskuntza prozesua garatuko den lekua gela arrunta izango da, salbuespena halakotzat baloratzen dena eta berariazko curriculumaren trebetasun jakin batzuen garapena izanik.

Gelako programazioa lantzean, ikusmen urriko ikasleentzako beharrezko egokitzapenak egiteak dakartzen aldaketak kontuan hartuko dira (adibidez, ikasle jakin batek iharduera batzuetan erantzuteko behar dituen denbora desberdinak eraginda gainerakoentzako iharduera osagarriak eratu behar dira edota ikasleak gelan egin behar duen zeregina murriztu behar da -osagarria den guztia saihestuz- etab.; materiala ikusmeneko edo entzumenezko baliabide osagarrien bidez aurkeztea -taldean edo bakarka-, etab. )

Egokitzapena egiteko, irakasleek ikastetxeaz kanpoko laguntza-taldeen (EMP eta CRI) aholkularitza izango dute; gainera dauden dokumentuetan ikasleari buruz jasotako aurreko ikasketa eta hezkuntza-historiala ezagutu ahal izango dute, ahal baldin bada eskolaketan zehar harekin harremanetan egon diren irakasleen eskutik.

CRI laguntza-taldeko irakasle ibiltariak ikastetxeko irakasleek aurreratutako material didaktikoa egokitzeaz arduratuko dira, bai eta horiei aholku emateaz ere, gelako espazioak, iharduerak, pertsonarteko harremanetarako ereduak, etab. egokitzeko. Berariazko curriculumaren garapena gelako iharduera arrunten artean baneratu ezin denean, CRI laguntza-taldea arduratuko da lan horretaz ikasleari arreta zuzena eskainiz. Ikastetxeko laguntzako irakasleak profesionalen arteko koordinazio-lana bete dezake. Tutoreari dagokio ikaslearen premiei buruzko informazioa eta erabakiak ikasle horrekin harremanetan dauden irakasle guztiei helaraztea.

Prozesuaren balorazioa curriculum-egokitzapenaren elaborazioan eta praktikan esku hartzen duten profesional guztien arteko koordinazioa gordez egingo da.



# Entzumen urriko ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

Pertsona *gorra* eguneroko bizitzarako entzumen funtzionalik ez duena eta, beraz, ahozko hizkuntza era espontaneo batean eskuratu ezin duena da, hizkuntza hori teknika berezien bitartez irakatsi/ikasi behar baita. Oso ikasle-talde heterogenoa osatzen dute, eta hezkuntza-tratamendu bereziak behar izaten dituzte, ez bakarrik entzumen urritasunaren mota eta mailagatik, urritasun hori ikaslearen eskola-prozesuan, gizarte-harremanetan, garapen pertsonalean, etab. eragiten ari den moduagatik baizik. Bat baino gehiago dira heterogenotasun hori zehazten duten faktoreak:

- Gortasuna hasi zen adina*
- Entzumenaren galera-maila*
- Kausak*
- Hezkuntza eta komunikazio-faktoreak*

Entzumenaren galera bi aldagai kontuan izanik ebaluatzen da: dezibelioetan neurtzen den *intentsitatea* eta soinu-uhinen bibrazioaren abiadurari dagokion eta herzioetan neurtzen den *frekuentzia*. Entzumenaren galeraren intentsitatea da, hizkuntza, ezagutza, gizarte eta hezkuntza-arloei dagokienez haur gorren garapenean gehien eragiten duena. Hala eta guztiz ere, ebaluazioa egiteko garaian, entzumenaren galera-kopurua ez ezik geratzen zaion entzumenaren kalitatea eta funtzionaltasuna, hau da, horien optimizazio-maila hartu behar da kontuan.

*Entzumenaren galera gertatzen den unek* aurretik aipatutako aldagaiak bezain besteko eragina dauka haurraren garapenean. Haurrak gero eta adin handiagoa izan ordua eta esperientzia handiagoa izango du hizkuntza-arloan eta, beraz, bere hizkuntza-bilakaera hobea izango da. Haur *gor prelokutiboek*, hau da, hizkuntza bereganatu aurretik entzumena galdu dutenek, soinuarekin esperientziarik izan gabe ikasi behar dute ahozko hizkuntza. Ikaskuntza hori oso prozesu luzea da eta, hitz egitea eta komunikatzailearen ezipainak irakurtzea lortzen badute ere, ahoz jasoko duten informazioa kuantitatiboki eta kualitatiboki oso mugatua izango da beti eta informazio hori lortzeko ahalegina oso handia eta etengabea (entzuteko gai den pertsonari entzumenaren bidetik iristen zaio informazioa, arretarik nahita jartzen ez badu ere).

*Gortasuna eragin duten kausak* hereditarioak edo hartuak izan daitezke eta beste lesio edo arazo batzuei lotuta ager daitezke. Anoxia (erditzean oxigenazio falta), RH bateraezina, rubeola, meningitisa, etab. izan daitezke

Badira *beste aldagai batzuk* haur gorren garapenean eragin handia izan dezaketenak. Horietako bat entzumena duten gurasoek haurraren gortasunaren aurrean izandako jarrera eta erreakzioa dira. Aldagai horrek gortasuna onartzeko eta asumitzeko jasotako laguntzarekin zerikusia dauka, hala, komunikazio-baliabide desberdinak erabiltzean eta seme/alaba gorraren autonomia pertsonala mugatzen duten jarrerak kontrolatzean nahi ez diren ondorioak saihestuz. Ikaslearen familia ere gorra denean, gortasuna onartzea ez da arazo bat izango eta gainera jaiotzetik bereganatuko du komunikatzeko hizkuntza bat. Azken talde honetako ikasleak, gainera, nolabaiteko maila lortuko du ahozko

hizkuntzan, zeren eta hizkuntza horretara jotzea izan baita ohizko egoera, entzumena duten gutxik ulertzen baitute zeinu bidezko hizkuntza.

Gortasunaz gain, *hipoakusia* duten haurrak aipatu behar dira, hau da, oraindik entzumen-gerakinak dituztenak eta garatu dituztenak eta entzuten irakatsi zaienak. Populazio honetan antzematen den aniztasuna handia da, eta ez bakarrik entzumenaren galera-mailaren arabera. Ezaugarri horiek betetzen dituen populazioaren barruan, pertsona askok ahozko komunikazio ia normalizatua lor dezakete eta beste batzuek, funtzionalki, gortasun sakona duten pertsonen antzeko zailtasunak dituzte. Pertsona hipoakusikoak tonu jakin batzuk entzuteko zailtasunak izan ohi ditu eta, horren eraginez, iristen zaion informazioa ez da osatua izaten etena baizik (adibidez, hitzei silaba jakin batzuk falta izatea). Pertsona hauei osatugabeko adierazleetan oinarrituz edo soinu distorsionatuen bidez esanahia deszifratzen irakatsi behar zaie. Entzumen-gerakinak erabiltzen dituzten moduaren arabera, pertsona horiek prozesu elebidun bat has dezakete, zeinuen hizkuntzan eta ahozko hizkuntzan oinarrituta.

DBHren adinetan, talde-izaera eta berdinekin identifikatzeko beharra kontuan izanik, komeni da ikastetxearen barruan pertsona gorren arteko harremana indartu eta bultzatzea (horien arteko komunikazioa oso jariakorra da erabiltzen duten kodea ez baita eragozpide bat -ahozko hizkuntza, berriz, eragozpide bat izan ohi da askotan).

### ***Hezkuntza-premia bereziak***

Pertsona gorrek entzumena duten horiek bezalako desberdintasunak dituzte adimenari dagokionez, Piagetek deskribatutako estadio desberdinetatik igarotzen baitira. Ordea, denboran nolabaiteko desfasea dute, eta hori pentsamendu hipotetiko-deduktiboa inplikatzeko eragiketa formaletan antzematen zaie, batzuetan ez baitira estadio horretara heltzen. Pentsamendu konkretuagoa dute, pertzepzio zuzenari lotua, eta abstrakzioarako gaitasun gutxi dute, beharbada, ahozko hizkuntzari lehentasuna eman dion hezkuntza-sistemaren ondorioz (beregantzen duten hizkuntza naturala bisuala da). Beharrezkoa izango da arloen edukinek nolabaiteko abstrakzio-maila dutenean ikasle horiei banaka hartuta edukin horiek azaltzea eta azalpen teorikoak eta hitzezkoak frogatu, eskema, etab.ekin laguntzea.

Edozein hizkuntzak jokabidearen autoerregulazioan eta plangintzan duen garrantziak eraginda, ahozko giro batean hazitako ikasle gorrei zailtasunak eta atzerapenak antzematen zaizkie alderdi horri dagokionez. Ezagutzak eskuratzeko beharrezkoa da informazioa jasotzea eta informazio hori modu egokian lantzen ikastea. Gortasuna duten ikasleei ahozko komunikazioan eta idatzizkoan antzematen zaizkien arazoek eraginda, iristen zaien informazioa oso mugatua da eta, beraz, geldotasuna sortzen da ikaskuntzaren prozesuan.

Gortasuna duten pertsonen harreman sozialek eta afektiboek ezaugarri berezi batzuk planteatzen dituzte: segurtasunik eza eta antsietatea agertzen da, babesteko, egoera berrien aurrean erantzunei aurrea hartzeko (planak aldatzea), arriskuarekiko, etab. zailtasunak eraginda, horiek guztiak pertsona horientzako igartezinak baitira soinurik entzuten ez dutelako. Ahozko komunikazioari lotutako zailtasunek (mezuak igortzea eta jasotzea) askotan frustraziozko erreakzioa sortarazten dute, denboraren poderioz gortasuna duen pertsonaren nortasuna egituratzen duena.

- Ahozko hizkuntzaren komunikazio-sistema alternatiboak, osagarriak erabiltzeko premia, ingurune desberdinetan elkarreragitea eta eskola-ikaskuntzetan aurrera egitea ahalbidetuko dietena.
- Entzumen-urritasuna “konpentsatzeko” premia, beren ingurunean gertatzen den horri buruzko informazio gehiago modu ulergarrian eskainiz, honela: informaziora heltzeko beste bide batzuk erabiltzea, informazioa prozesatzeko denbora gehiago eskaintzea, testuinuru batean hitz baten esanahi zehatza ulertzea ziurtatuko duten azalpenetara eta informazio indibidualera jotzea, ezpainak irakurri ahal izateko leku egoki batean kokatzea, etab. Etapa honetako adin-tartean kontuan hartu beharra dago jakinmina dela ezaugarri nabarmenetako bat eta informazioa jasotzeko behar horri emandako erantzunetik ingurunearekiko interesa edo interesik eza adieraziko duten jarrerak ondorioztatuko direla.
- Garapen emozional orekatua izateko premia, identitate eta autokontzeptu positiboa ahalbidetuko duena, identifikazio-ereduen agerpena bultzatuz (pertsonek gor helduak eskola-ingurunean, ikaskide gor gehiago). Komenigarria litzateke ikastetxean ikasle gor bat baino gehiago eskolatzeko integrazio-eredu bat izatea, haiek elkarrekin zeinu bidez harremanak ezartzeko aukera izan dezaten. Berdinen artean osatutako taldea oso mesedegarria izaten da adin honetan aldaketa pertsonal nabarmenak garatzeko. Hezkuntza-etapa honetako adin-tartean, astialdian zehar, Elkarteetan topatuko dira identitate bereko jendearekin egoteko.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

### ***Curriculuma: ezaugarri bereziak eta egokitzapen-mota***

Lehen esan dugun bezala, erantzunak indibidualizatua eta pertsonalizatua izan behar du, antzeko entzumen-arazoak dituzten pertsonengan, ikuspegi medikotik, entzumen-gerakinen funtzionaltasun-maila ugari aurki baitaitezke. Beraz, aholkulariek eskaini ditzaketen ezagutza generikoetan oinarrituz, ezinbestekoa izango da eskolatuta egon den azken urteetako datuak aztertzea.

Etapa honetan, ikasleak berak eman ditzake erreferentziak bere premiei buruz, bai eta, kasurik onenean, ikasteko baliagarriak izan zaizkion irakaskuntza-estrategiei buruz ere.

Hasierako azterketa horren arabera, honako hauei buruzko erabakiak hartuko dira:

*Komunikazioaren garapena.* Ahozko hizkuntza eskuratu eta garatzeko, ikaslearen ahalbide sensorial guztiak erabili behar dira. Komunikazio-egoeretan ikasle gorrentzako ahalik eta seinale gehienak erabili behar dira, igortzen zaien informazioa errazago uler dezaten. Esaldi isolatuak, galdera solteak, eta testuinguruak kanpoko mezuak saihestu behar dira, beste inolako laguntzarik gabe nekez uler baitaitezke. Ikasleak ahozko hizkuntza garatzeko arreta indibiduala behar badu edo behar ez badu ere, irakasleak ikasleak mintzaira bereganatzeko beharrezkoak diren teknikak ezagutu behar ditu, gela arruntean komunikazio-egoera esanguratsu, motibatzaile eta

funtzionaletan erabili ahal izateko. Hizkuntza-elkarreraginak sortzen direnean hizkuntzak dituen funtzio desberdinak erabili behar dira: eskatzea, galdetzea, sentimenduak adieraztea, etab. Zeinu bidezko hizkuntza gehienetan familian erabiltzen duten hizkuntza izategatik bereganatu dutenean, garrantzizko oinarri eta bitarteko izan daiteke ahozko hizkuntza errazago ikasteko.

*Hizkuntzaren garapena.* Komunikatzeko gaitasunari estu lotuta, ahozko hizkuntza garatzen saiatu behar dira, ingurune sozialarekin komunikatzeko bide gisa, eta garapen hori egindako errehabilitazio-lanaren arabera izango da. Arlo horretaz esku-hartze espezializatuagoa burutzea eskatu zaien profesionalak arduratuko dira (entzumen eta hizkuntza-arloko irakasleak edo gortasunean berriazko prestakuntza jaso duten logopedak).

Behar-beharrezkoa da irakaslea konturatzea gelan ezpainak irakurtzeko (soinu asoziatu gabe) ahalegin handiak egin behar direla. Gainera, baldintzak onak direnean ere erne egon behar du beti, entzumena duten gainerako ikasleen ezpainetan mugimendua sortzen ote den ikusiz, eta sarritan testuinguru orokorrak ematen duen esanahia deszifratzen saiatuz, zeren eta zenbait silabaren artikulazio-gunea bera baita eta soinu asoziatuak bakarrik ahalbidetzen du esanahia ahalegin gabe ezagutzea.

*Beste ikaskuntza baterako sarbidea.* Curriculumaren funtsezko alderdietako bat arlo instrumentalak dira (irakurketa, idazketa, etab.), beste ikaskuntza batzuetarako sarbideak baitira. Hezkuntza-etapa honetan zehar, idatzizko kodearen garapenak lehentasunezko helburu izaten jarraitu behar du (edozein ikaskuntza-arlotako irakasgai), zeren eta kasu askotan zenbait ikasleek ez baitute horrelakorik bereganatu, eta horregatik beharrezkoa da garatu beharreko lana planifikatu eta sistematizatzea, idatzizko kodeak adierazten duen ahozko kodea ez menperatzeagatik sortutako zailtasunak direla-eta.

*Gizartean moldatzea.* Ikaskuntza funtzionalen garapena beti hartu behar da kontuan eta funtsezko helburu izan behar du irakaskuntza-prozesuetan. Ildo horretatik, ez dugu ahaztu behar adin horietako ikasleek zailtasunak izango dituztela ahozko ingurune sozialean moldatzeko. Zailtasun horietako askok komunikatzeko dituzten ahalbide mugatuekin zerikusia dute, baina, ikasleak komunikatzeko duen gaitasuna edozein izanda ere, bere adinean ohizkoenak diren funtzio sozialak bete ahal izateko aukera eskaini behar zaio.

Informazioa zuzenean jasotzeko ahalbide mugatuak eraginez, beren trebetasun sozialak ez datoz bat adin bereko ikaskideek garatutakoekin. Hauxe da inguratzen duten pertsonen beti kontuan hartu beharreko zerbait: gauzak modu batean eta ez bestean gertatzearen zergatia ulertzeko zailtasunak izan ditzakete, itxuraz berdinak diren egoeretan erantzun-motak desberdinak direlako, etab.

*Entzumena duten ikaskideekiko harremanak:* Hezkuntzaren zeregin garrantzitsuenetako bat ikasleen sozializazioa indartzea da, berdinen artean taldeko eta pertsonarteko harremanak ezar daitezen lortzea, norbanako gisa eta talde gisa garatzeko. Horretarako, komunikazio-tailerrak sortu edo Zeinuen Hizkuntza izeneko aukerako arlo bat edo Ahozko Hizkuntzaren komunikazio-sistema gehigarriak edo alternatiboak antola daitezke, horien bidez entzumena duen ikaslea ikasle gorrarekiko elkarreraginean trebatzeko. Hizkuntzaren gainetik bi norabideko komunikazioari eman behar zaio lehentasuna, eta elkarreragina sortzen entzumena duen pertsonak ez ezik gortasuna duenak ere saiatu behar du.

*Beste pertsona gorrekiko harremana:* Haur gorrekin ez ezik (horien bila arituko dira zeinuen hizkuntzaren bidez era naturalagoan komunikatu ahal izateko) beste adin batzuetako pertsona gorrekin harremanak ezartzeko eta komunikatzeko dituzten premiak ere kontuan hartu behar dira. Komunikazio-kode amankomunen garrantzia, berezko ezaugarriak dituen komunitatearekin identifikatu ahal izatea eta bertako osagai dela sentitzea, horrek guztiak nortasuna garatzen lagunduko dio eta, beraz, autoestimazio orekatua ere bai (nekez gara daiteke horrelakorik identifikazio-eredu bakarra entzumena duen pertsona denean, bere aldean beti pentsatuko baitu gabezia bat duela).

- Bere ingurunea zuzentzen duten arauak ezagutzeko zailtasunak kontuan izanik, gainerako ikasleek era natural batean bereganatzen dituzten balore, arau eta jarrerai buruzko edukin jakin batzuk berariaz eta sistematikoki landu behar dira.
- Gelako programazioan gortasunari eta gorren munduari buruzko edukinak barneratzea.
- Curriculum-arlo jakin batzuetako edukinak aldatzea, zailtasun handiagoak izango dituzten horiek alegia (adibidez, Gaztelania eta Euskara, Atzerriko Hizkuntzak, eta Arte-Hezkuntzaren arloko edukin batzuk, esaterako Musika). Gaztelaniaren eta Euskararen arloetan, entzumena duten ikasleei dagokienez aurretiazkotzat jotzen diren helburuak eta edukinak barneratu beharko dira, horiek ahozko hizkuntzari eta idatzizkoari buruzkoak izanik. Atzerriko Hizkuntzan egingo diren egokitzapenak ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren araberrakoak izango dira. Arlo horretan, idatzizko hizkuntzaren ulermenari eta adierazmenari buruzko helburuek eta edukinek hartuko dute lehentasuna eta testuinguru desberdinetarako (jatetxe, denda, parke, garraiobide, etab.) hiztegi eta espresio funtzionalak landuko dira.
- Arte-Hezkuntzaren arloan, garrantzizko egokitzapenak egin beharko dira musika-adierazpenaren edukin-multzoetan, eta erritmoaren eta soinuaren pertzepzioaren oinarritzko alderdiak landuko dira, adibidez, bibrazio-ukimen estimulazioaren bidez.

### ***Curriculum arrunterako sarbideak***

- Lan-proposamenak bakarka aurkeztu behar dira zereginaren helburua eta berau betetzeko jarraitu beharreko prozesua ulertu dela ziurtatzeko.
- Elkarlanean egin beharreko iharduerak planifikatzea, horrela bere ikaskideekiko elkarreragina bultzatzen baita.
- Ahal den guztietan, informazioa euskarri bisualen laguntzarekin aurkeztu behar da (gardekinak, testu idatziak, bideoak, eskemak, etab.), ahoz transmititzen den informazioa argitzen laguntzeko. Informazio hori elkarren segidan aurkeztu behar da, ez ordea batera (ezin dira hitz egiten ari den pertsonaren aurpegia eta pupitrearen gaineko estimulua aldi berean begiratu)
- Hitzak inoiz menperatuko ez duen eta komunikatzeko nagusiki ikusmena, ukimena edo sinboloak erabiliko diren egoerak diseinatzea, azterketa,

behaketa, froga, etab. bezalako iharduerak planteatuz, horien bidez aktiboki parte hartu ahal izango baitute ikaskuntza-prozesuan.

- Ikasgaiari buruzko apunteak ematea, ezin baitu aldi berean azalpenen adi egon -aurpegira begiratu- eta aldi berean oharrak hartu -aldi berean idatzi-.
- Ikaskideekin elkarreragina bultzatu behar da, entzumena edo gortasuna badute ere, lan-proposamenen arabera talde-mota desberdinak erabiliz.
- Beharrezkoa izango da irakasleak, ikasleen artean tartekatuz, sarritan esku hartzea, gortasuna duten ikasleei segurtasuna eta konfiantza ematearren. Ikasle horiek gainerako ikaskideen aldean lan horiei buruzko esperientzia eta informazio-maila gutxiago izatean, hersturari eta heldutasun eza sozial eta pertsonalari lotutako sintomak izan ditzakete (entzumena beti irekita dagoen informazio-bide bat da, horretaz kontziente izan ala ez, eta pertsona inguruneko estimuluen aurrean beti erne egotea eragiten du). Gelako edo inguruneko testuinguruan gertatuko diren aldaketak bakarka azaltzeak segurtasuna emateaz gain autonomia pertsonalaren eremuan heldutasuna lortzen laguntzen die.

### *Baliabide materialak*

- Erabiliko diren idatzizko materialak egokitu eta horiei informazio bisual gehiago erantsi behar zaie zeinuak, marrazkiak edo grafikoak erabiliz.
- Hiztegian idatzizko testuetako egitura sintaktikoetan aldaketak egin beharko dira bai eta laguntza orokorrak edo indibidualak eskaini ere testu horiek erabat ulertzen direla ziurtatu arte.
- FM edo laguntza teknikoren bat erabiltzen badute, mantentzen bikaina eta etengabea ziurtatu beharko da. Mikroak eta hargailuak ondo kokatuta egon behar dute eta emisioaren nahiz harreraren kalitateak ona izan behar du.
- Ahozko hizkuntzaren komunikazio-sistema osagarriak (Bimodala, Hitz Osatua) edo alternatiboak (Zeinuen Hizkuntza) era planifikatu, koordinatu eta sistematikoki batean erabili behar dira, helburuetara eta edukinetara heldu ahal izateko. Behar-beharrezkoa da ahozko hizkuntzaz gain gainerakoekiko elkarreragina, informazioaren errepresentazio mentala eta beren portaeraren plangintza ahalik eta modu errazenean eta azkarrenean ahalbidetuko dien komunikazio-sistema erabiltzea.

Bi aukera daude zeinu bidezko komunikazioan: gorren komunitateak erabiltzen duen zeinuen hizkuntza, berezko egitura eta arauak dituen, eta ahozko hizkuntza bimodala, hau da, ahozko hizkuntzaren laguntzarekin zeinuak erabiltzen dituen. Zeinuen hizkuntza erabiltzearen eta, beraz, ahozko hizkuntza bigarren hizkuntza gisa agertzen den eredu elebiduna onartzearen arrazoi nagusia benetako hizkuntza bat eskuratzea da, horrek berekin dakartzan hainbat eta hainbat aukerekin haurren komunikazioaren eta ezagutzaren garapenerako. Zeinuen hizkuntza ahozko hizkuntzarekin batera erabiltzea, elebitasuna, oso garrantzitsua da gortasun larria eta sakona edo entzumen-gerakin funtzionalik ez duten haurrentzat.

Idatzizko hizkuntza menperatzea oinarritzkoa da curriculumaren edukinetan sartzea ahalbidetzeko, baina, horretarako, ordea, esku-hartzeko neurri indibidualak behar dira lehenengo mailetan; ez da erraza aldi berean ikasleak oraindik bereganatu ez duen edo akatsekin bereganatu duen beste ahozko kode bat adierazten duen kode bat eskuratzea.

Zeinuen hizkuntza menperatzea laguntza handia izan daiteke irakurmenerako, bere bitartez garatzen baita hitzen eremu semantikoa.

Erantzun-egitura egokienak ez du inoiz generikoa izan behar, gortasun sakona duten ikasle guztientzako edo hipoakusia duten guztientzako bera, ikasle bakoitzari buruz jasotako datuen azterketatik (ezaugarri pertsonalak eta ikaskuntzarekin zerikusia dutenak, famili giroa, eskola-testuingurua, jarrerak, erabiltzen duen komunikazio-bidea, etab.) eta horiei buruzko ebaluaziotik ondorioztatu behar da.

Ikasle *gor sakon prelokutiboentzako*, hizkuntza entzumenaren bidez zer den jakiteko esperientziarik ez dutenentzako, gehienetan curriculumaren egokitzapen indibidualizatu nabarmen bat landu behar da, beren erantzun-ahalbideetara egokitzearen. Curriculumaren egokitzapen indibidualizatu ahalik eta ingurune zabalenean garatzea komeni da (gela arruntean, adibidez), hiruhileko, hileko, hamabostaldiko... programazioan barneratuz. Hezkuntza-etapa honen hasieran baliteke ikase horiek oraindik laguntza indibiduala behar izatea ahozko hizkuntza garatzen jarraitzeko.

*Gortasun postlokutiboa* duten ikasleentzako, hau da, hizkuntza bereganatu ondoren gor geratu diren ikasleentzako edo entzumen-gerakin funtzionalak dituzten ikasleentzako baliteke curriculum arrunta beren erantzun-ahalbideetara egokitzeko hizkuntza-arloan (gaztelania, euskara, ingelesa, etab.) gutxi gorabeherako garrantzia izango duten aldaketa batzuk egitearekin nahikoa izatea. Hala eta guztiz ere, entzumena nahikoa ez denean edo urria denean horrek bizitzan zehar informazio gutxiago metatu dela eta, beraz, ezagutzaren alderdi asko nahiko eskas geratu direla esan nahi du, eta hori beti hartu behar da kontuan.

Pertsona gor prelokutiboei eskainiko zaien arreta honako hauek baloratuko dituen azterketa zehatz batean oinarrituko da: galera sortu zen adina, hizkuntzari dagokionez ordura arte lortutako garapen-maila, entzumen-gerakinen maila eta funtzionaltasuna, egoera horrek sortutako eragin pertsonala eta soziala, etab. Litekeena da laguntza pertsonala edozein erantzun-programaren osagai garrantzitsua izatea.

Entzumen-urritasun larria duten pertsonentzako erantzun-egitura (kontuan izanik pertsona batetik besterako aniztasuna handia dela), orokorrean, honako eremu hauei lotuta agertzen da:

*Ahozko errehabilitazioa.*- Entzumen-gerakinen aprobetxamendua eta ahozko hizkuntzaren garapena indartzen jarraitzeko. Iharduera hau, gehienetan, logopedek edo espezialistek garatuko dute. Komunikazioaren garapenari gehiago lotzen zaien alderdiak eraginkorragoak izan daitezke entzumena duten pertsonak eta entzumen urrikoak bi norabideko komunikazioan trebatzen dituzten gelako iharduera gisa biltzen badira.

*Hezkuntza-laguntza.*- Curriculum-edukinetarako sarbidea erraztera bideratua (idatzizko testu egokituak, hiztegi berria eta testuinguru desberdinen araberako esanahia, kontzeptuak barneratu edo horietan sakontzeko sistema osagarriak, norbanakoari zuzendutako azalpenak, etab.). Lan hau laguntzako irakasleak edo alde zuzenetik orientatu ondoren gelako irakasleak gara dezake.

*Hezkuntza eta gizarte-integrazioa.*- Entzumen urriko pertsonen eta ingurunearen arteko elkarreragina errazteko, kontuan izanik egoera horrek bi kolektiborekin (gorrena/entzumena dutenena) indentifikatzera bultzatzen dituela. Edukin horiek arlo guztietan planifikatu eta irakasle guztiek aurrera eramango dituzte, aholkularien laguntzarekin (logopedak, EMP eta orientatzailea).

Premiak denboraren zehar aldatu egiten dira eta Lehen Hezkuntzaren zikloetan errehabilitazio-aldiak lehentasuna hartzen duen bitartean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan beharbada hezkuntza-laguntzak hartuko du lehentasuna, ikaskuntzen gero eta konplexutasun-maila handiagoa dela-eta.

Ikastetxearen hezkuntza-neurrien ikuspegitik, beharrezkoa izango da komunikaziorako oztopo guztiak pixkanaka ezabatu edo kentzea, eta hori lortzearen aldi berean entzumenaren eta ikusmenaren bidez lortu ahal izango den informazioa eskaintzen saiatu behar dugu, urritasun hori duten pertsonak gainerako ikaskideen menpe egon ez daitezen.



Hirugarren Zatia

Hezkuntza-erantzunaren  
antolamendua

# Hezkuntza-prozesua indibidualizatzeke irizpide orokorrak

Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleari ahalik eta modu integratuenean erantzuteko ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza-erantzuna aniztea ahalbidetuko duten hezkuntza-testuinguruak sortu behar dira, ikasle horien ezaugarrietara eta premietara ahalik eta gehien egokitzearen. Horretarako, zenbait faktore kontuan hartu eta horiei buruz gogoeta egin behar da, hain zuzen ere orokorrean ikasleei erantzuteko modua zehaztu eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskaini ahal izango zaien erantzun-motaren gainean zuzeneko eragina dutenak.

Eta honetan zehar ikasleen ezaugarri bereizgarrietara ahalik eta gehien egokituko den hezkuntza-erantzuna eskaini nahi bada kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsuenetako bat hezkuntza-arloko esku-hartzea antolatu eta egituratzen den modua da. Etapa honetara igarotzen direnean ikasleen egoera desberdina izango da aurretik eskolan izan duten arrakastaren edo porrotaren arabera, horrek zehazten baititu haien jarrerak eta igurikapenak eskolaren eta beren buruaz duten kontzeptuaren aurrean, bai eta haien interesak eta motibazioak eta gaitasun desberdinen garapen-maila ere (kognitiboak, sozialak, afektiboak, motrizak, etab.). Ikasleen artean antzematen den aniztasun hori handitu egiten da hezkuntza-etapa honetan, eta horren ondorioz irakaslea behartuta egongo da bere lana modu desberdinetan antolatzea, ikasleengan antzematen dituen ezaugarri zehatzen arabera, alegia.

Hezkuntza-erantzuna antolatzeko beharrezkoa izango da edozein metodologi proposamenetan barne hartzen diren osagai edo aldagai batzuei buruz erabakiak hartzea:

- Edukinak antolatzeko modua (ikuspegi disziplinarra, disziplinar-tekoa, globalizatzailea, etab.).
- Hezkuntza-egoera batean dauden pertsona desberdinen arteko elkarreragina ezartzen den modua eta funtzioak.
- Ikasleak antolatzen diren modua (talde handia, talde txiki finkoa edo malgua, bakarka, etab.).
- Espazioa eta denbora antolatzen diren modua (bazterrak, tailerrak, arlo bakoitzerako gela bereziak, etab.).
- Erabiltzen diren curriculum-materialak eta horien helburua (testuliburuak, lan-fitxa indibidualak, ordenadore bidezko irakaskuntzak).
- Ebaluazioa egiten den modua eta helburua (emaitzen ebaluazioa, prestakuntzazkoa edo prozesuaz informatzen duena, etab.).

Aldagai horiek guztiek hezkuntza-iharduera baldintzatu eta zehazten dute eta elkarri lotuta daude; beraz, horietako bakoitzaren gainean hartzen diren erabakiek gainerakoengan eragina dute.

Ikasgelan sortzen diren egoera didaktikoak (lan-proiektuak, tailerrak, irakasleen azalpenak, etab.) edukin antolatzeko modu jakin baten ondorio dira (modu globalizatzailea edo disziplinar-tekoa, modu disziplinarra, arloka, etab.) eta espazioak eta denborak, irakasleak eta ikasleak antolatzeko modua, eta ikasgelan sortuko den

elkarreragin-mota zehaztuko dute. Hezkuntza-egoerak gero eta irekiagoak eta malguagoak izan, orduan eta ahalbide handiagoa izango dute hezkuntza-premia duten ikasleek testuinguru arruntean erantzuteko.

## **Edukinen antolamendua**

*“Unitate didaktiko desberdinak osatzen dituzten ikaskuntza-edukin desberdinen arteko erlazioei eta horiek elkarlotzeko moduari deitzen diegu edukinen antolamendua”* (Zabala, 1995). Edukinak antolatzeke modu desberdinak daude, hau da, disziplinen ikuspegitik edo ikaslearengan eta bere premietan oinarritutako ikuspegitik, horren emaitza metodo globalizataileak eta disziplinar-tekoak deitzen zaien horiek izanik.

Edukin jakin batzuen inguruko lan sistematikoa egiteko jakintzagaikako antolamendu tradizionalaz gain bestelako antolamolde batzuk hartu behar dira kontuan, horiek ahalbidetuko baitute bi arloko edo gehiagoko edukinen arteko lotura eta bizitza errealean ikasleari agertuko zaizkion egoera aniztetera eta konplexuetara aplikatu eta zabaldu ahal izango diren ikaskuntza funtzionalen garapena. Lan-proposamen irekiagoak eta funtzionalagoak direnez, ikasleen motibazioa handitzeaz gain hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak errazago eta arrakasta handiagoz integratu ahal izango dira, abstrakzioarako eta generalizazioarako duten gaitasuna mugatuagoa izan arren.

Ikuspegi globalizatailea duten metodoetan, edukin-mota desberdinen ikaskuntza ondoren adierazitako behar hauek justifikatzen dute: ikasleei edo irakasleari planteatzen zaizkien egoera problematikoak konpontzea, lan-proiektu zehatz bat egitea, ikasleei interesatzen zaien gai bati buruzko alderdi desberdinak ezagutzea, etab. “Estrategia globalizataileen asmoa hau da, ikasten dena antzemandako premia edo behar batean oinarrituta egotea, ez ordea a priori inposatutako ezagutzetan. Ikasleek azalpenik ez duten fenomenoei buruzko galderak planteatzen dituzte, eta iharduera desberdinen, esperimentazioaren, irakurketaren eta iritzi desberdinen arteko kontrastearen bidez printzipio edo kontzeptualizazio konplexuen formulazioa ulertzea lor dezakete” (Zabala, 1995). Ondoren, metodo globalizataileen adibide batzuk eta horietako bakoitzaren lan-faseak adieraziko ditugu. Eredu itxi gisa baino gehiago erreferentzi esparru gisa erabili behar dira, hain zuzen ere irakasleak egokitu beharrekoak landu nahi diren arloen eta lortu nahi diren hezkuntza-helburuen arabera. Gainera, gerta daiteke metodo horietakoren baten fase jakin bat beste metodo batean barne hartzea edo deskribatutako prozesua sinplifikatu ahal izatea. Kontua ez da azalpen eta disziplina-izaera handiena duten metodoak metodo aktiboagoei eta globalizataileagoei kontrajarrita agertzea eta curriculum-ikusegi bakar batetik antolatze, bi metodoak elkartzea baizik. Are gehiago, arloen edukin instrumental eta oinarritzko batzuei oso modu berariazkoan eta disziplinarrean landuz bakarrik heldu ahal izango zaie. Metodo globalizataileen alderdirik adierazgarriena lan-proposamen irekiak eskaintzea da, erantzun-mota eta maila desberdinak onartuz eta, beraz, ikasle guztiak barne hartuz, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne.

## ***Disziplinartekotasuna***

Zenbait disziplina arazo berari irtenbidea emateko erabiltzen dira. Izan ere, ikaslearentzako garrantzitsuak diren arazoei irtenbidea emateko teknikak aplikatzeko beharrak ezartzen ditu hain disziplina anitzen arteko loturak. Arazoei irtenbidea emateko ikuspegitik jarraitutako faseak ondoren adierazitakoak dira:

- Arazoa planteatzea, adibidez ikasleen aldetik.
- Lanerako plan bat lantzea, erabiliko den metodoa eta materiala barne direla. Plana diseinatzea.
- Plana aurrera eramatea. Garatzea.
- Datuak aztertzea, ondorioak baloratzea, ikasleak berak lortutako ondorioei buruz egindako galderak formulatzea. Analisisa eta ondorioak.

## ***Proiektuen metodoa***

Disziplina bat baino gehiago biltzea berekin dakarren lan baten planteamendua da, eta ikaslea prozesu guztian zehar protagonista sentitzen denez, hala, taldearen barruan bakoitzaren ekimena eta erantzukizuna pizten da. Proiektuaren garapenerako jarraitzen den sekuentzia ondoren adierazitakoa da:

- *Proiektua definitzea*: Taldea osatzen duten ikasleek, irakaslearen koordinazioarekin eta gainbegiraketarekin, egin nahi dutena eta antolatzeko modua zehazten dute. Egin nahi duten horren ezaugarriak eta lortu nahi dituzten helburuak argitzen dituzte.
- *Prestatzea*: Hau da, erabiliko diren bitarteko desberdinak, materialak, informazio egokia, jarraitu beharreko pausuak eta aurrikusitako denbora planifikatzea eta programatzea.
- *Aurrera eramatea*: Lana ezarritako planaren arabera garatzea. Ikaskuntza-arlo desberdinetako teknikak eta estrategiak (idaztea, zenbatzea, neurtzea, marraztea, muntatzea, etab.) proiektua lantzean antzemandako beharren arabera erabiliko dira.
- *Ebaluatzea*: Behin proiektua amaitu ondoren, bere eraginkortasuna eta balioa ziurtatuko dira. Jarraitutako prozesua, sortutako zailtasunak eta ikasleen partaidetza aztertuko dira.

## ***Gelako ikerketa-metodoa***

Ikaslea moldatzen den ingurunearekin harremana izateak bere interesa eta motibazioa piztuko ditu errealitatean planteatzen diren hainbat arazo aztertzeko garaian. Arazo

horiei irtenbidea emateko beharrezkoa izango da lan-hipotesi bat garatzea, aldez aurretik bildutako datuekin eta informazioekin egiaztatu beharko dena. Horrek arazoa erabat edo neurri batean konpontzea eta beste galdera batzuk planteatzea ahalbidetuko du. Metodo hau garatzeko jarraitu beharreko pausuak ondoren adierazitakoak dira:

- *Motibazioa*: Ikaslea bere bizi-esperientziatik gertu dauden egoeren aurrean jartzen da, egoera horrek planteatzen dituen arazoekiko interesa eta motibazioa piztearren. Gelako eztabaida aztergaiaren alderdiak definitzeko bide bat da.
- *Galderen edo arazoaren esplikazioa*: Talde txikietan edo talde handi batean ikerketaren xede diren galderak edo arazoak zehazten eta sailkatzen saiatu behar dute.
- *Hipotesia*: Planteatutako galdera askotarako, ikasleek nolabait intuizioak eragindako erantzunak dituzte, aurretiazko informazioen edo esperientzien emaitza gisa. Ikasleek erabili behar dituzten bideak, bitartekoak edo tresnak aurrikusi ahal izatea lortu nahi da.
- *Informazioa bilatzeko tresnak zehaztea*: Aztergaiaren arabera, tresnak zuzeneko esperientziari lotuta egongo dira (bisitak, elkarrizketak, esperimentazioak, etab.), bai eta zeharkako informazio-iturriari (artikuluak, liburuak, egunkariak, etab.) edo irakasleak eskainitako informazioari ere.
- *Informazio-iturriak diseinatzea eta ikerketa planifikatzea*: Fase honetan informazioa bilatzeko iharduerak garatuko dira eta erabiliko diren tresnak zehaztuko dira (galdekizunak, behaketa-ereduak, etab.).
- *Datuak biltzea*: Ikasleek planteatutako galderari eta arazoei erantzuteko baliagarriak izango diren datu guztiak bilduko dituzte.
- *Datuak aukeratu eta sailkatzea*: Planteatutako galderari edo arazoei erantzuteko datu garrantzitsuenak aukeratzea.
- *Ondorioak*: Lortutako datuekin ikasleek suposamenduen edo aurretiazko ideien balioa ziurtatzen eta beren ezagutza-eremua zabaltzen saiatu behar dute.
- *Generalizazioa*: Testuingurutik ateratako lan bat egitea eta ondorioak beste egoera batzuetara aplikatzea.
- *Adierazpena eta komunikazioa*: Adierazteko eta komunikatzeko teknika desberdinak erabiliz, ikerketaren emaitzak gelako edo ikastetxeko ikasleei azalduko zaizkie.

### ***Lan-proiektu globalak***

Proposamen-mota honekin haxe lortu nahi da, ikasleak informazio jakin bat antolatzen, ulertzen eta bereganatzen lagunduko dieten prozedura batzuk ikasten hastea. Lanaren emaitza gisa, ikasleek gai zehatz bati buruzko dossier bat landuko dute, eta horretarako beharrezkoa izango da disziplina, arlo edo jakintzagai desberdinetan

bereganatu dituzten trebetasun, estrategia eta ezagutza batzuk erabiltzea. Proiektua egitean ondoren adierazitako faseak barne har daitezke:

- Gaia aukeratzea: Ikasleek edo irakasleak lantzeko izango diren gai desberdinak proposatu eta horietako bat aukera dezakete proiektu berri bat egiteko.
- Gaiaren garapena planifikatzea: Gaia aukeratu ondoren, taldea osatzen duten ikasleek proiektua osatuko duten atalak proposatuko dituzte.
- Informazioa bilatzea: Erabiliko den informazioa eta materiala biltzeko modua zehaztu ondoren, ikasleak banatu egingo dira informazioa bilatzeko garaian.
- Informazioa lantzea: Ikasleek gai izan behar dute funtsekoa eta anekdotikoa zer den jakin eta bereizteko; bai eta bitarteko eta baliabide desberdinekin lan egiteko behar diren trebetasunak bereganatzeko, informazioa sailkatu eta antolatzeko, eta ondorioak ezartzeko ere.
- Atal desberdinak garatzea: Bildutako eta aukeratutako informazioan oinarrituz, kapitulu desberdinetako edukinak landuko dituzte.
- Ebaluazioa: Azkenik, jarraitutako prozesua, zailtasunak, ikaskuntzak, beste egoera batzuerako aplikazio posibleak, etab. baloratuko dira.

## **Ziklo/gelaren antolamendua**

Antolamendurako aukerak anitzak izango dira eta irakasle-taldeek lehentasunezkoztat joko dituzten metodologi aukerei buruz eta edukinak antolatzeko moduari buruz hartuko dituzten erabakiek baldintzatuko dituzte. Antolamenduaren egiturak malgua izan behar du, lan-proposamen mota desberdinen garapena eta hezkuntza-erantzun pertsonalizatua eta ikasle-taldearen ezaugarrietara egokitua ahalbidetzeko moduan. Hartuko diren erabakiak esku hartzen duten profesional desberdinek aztertuko dituzte beren hedadura eta inplikazioak ezagutzeko asmoz. Adibidez, ezin da erabaki talde malguak sortzea horien antolamendua argi eta garbi erabaki ez bada: talde horien helburua, ikasleak taldetan banatzeko irizpideak, helburuak, ebaluaziorako eta jarraipenerako sistemak eta tresnak, materialak, etab.

Hezkuntza-ingurunearen antolamendua ikasleen hezkuntza-premietara egokitutako hezkuntza-erantzuna erraztuko duen elementu bat da. Hezkuntza-ingurunea antolatuta eta egituratuta dagoen neurrian, esku hartzen duten agente desberdinen lana eraginkorragoa izango da eta, hala, ikasgelan ikasle guztien garapen pertsonala eta soziala bultzatuko duen giroa sortuko da.

Espazioak eta denborak antolatzeko moduak esku-hartze pedagogikoaren araberakoak izango dira. Ikuspegi konstruktibista hartzen badugu, ikaskuntza-prozesuan ikasleak ikaskideekin eta irakasleekin elkarreaginean zeregin aktiboa betetzen duen hori hain zuzen, giza eta material-baliabide desberdinak hezkuntza-asmoen eta ikasgelan garatuko den iharduera-motaren arabera banatzeko eta antolatzeko aukera eskaini behar da. Espazioen eta denboren, giza eta material-baliabideen antolamendua erabakitzen

denean, ziklo/gelako ikasleen ezaugarriak kontuan hartu behar dira, hezkuntza-premia bereziak dituzten horienak barne.

Hezkuntza-erantzun dibertsifikatua, hau da, hezkuntza-erantzun desberdinak eratzea ahalbidetuko duen antolamenduak ondorengo ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Malgua, plante daitezkeen egoera desberdinetarako balio izateko moduan.
- Irekia, sartu beharko diren aldaketen aurrean.
- Funtzionala eta hezkuntza-ingurunearen ezaugarrietara egokitua.
- Denentzako hezkuntza-ihardueretarako espazioen indartzailea, irakasleentzako azterketa eta gogoeta-gune gisa baliagarriak izanik.
- ...

Dokumentu honen ikuspegitik, aniztasunerako eta, beraz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna ahalbidetu dezaketen antolamenduaren alderdiak azpimarratzera mugatuko gara.

### ***Ikasleen antolamendua***

Ikasle-taldeentzako antolamenduan ondoren adierazitako aldagaiak kontuan har daitezke:

- Osaera: talde homogenoak - talde heterogenoak
- Mugikortasuna: talde finkoak - talde mugikorak edo malguak
- Neurria: talde handia (gela, zikloa), talde txikia, lagun bakarrekoa

Goian adierazitako aldagaiak konbinatuz talde-mota desberdinak eratzeak honako helburu hauek betetzea ahalbidetuko dio irakasleari:

- Ziklo/gelako ikasleei eskainitako arreta era desberdinetakoa izatea
- Edukin-mota desberdinak era desberdinetan lantzea
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta bermatzea
- Laguntzako irakasleen esku-hartzea erraztea
- Gela berean bi profesionalek edo gehiagok batera eta aldi berean lan egitea
- Ikasleen lan autonomia indartzea eta horren ondorioz irakaslearen esku-hartze individualizatuagoa lortzea
- Elkarlana eta tutoretzapeko irakaskuntza ahalbidetzea, kontuan izanik arlo kognitiboan nahiz sozialean gelako ikasle guztientzako horrek dakartzan abantailak, hezkuntza-premia bereziak dituzten edo beren ikaskuntzan zailtasunak dituzten ikasleak barne direla.
- Ikasleen jarraipen eta ebaluazio-prozesuak erraztea, prozesuan zehar behar duten laguntza eskainiz
- Ikasleen ikaskuntza-estilo desberdinetara egokitzea
- Lan globalizatua edo disziplinarrekoa
- Espazio berean eta talde heterogeno batean zeregin desberdinak betetzea, errealizazio-eritmo desberdinekin

Talde heterogenoak ikasleari egokitutako irakaskuntza-mota batean oinarritzen dira; aitzitik, antolamendu-egitura homogenoetako irakaskuntza selektiboa da. Talde

heterogenoei atxikitako funtzio sozializatzailaz gain elkarlanean oinarritutako ikaskuntza eta ikasleen arteko laguntza bultzatzen da, horrela irakaslearen nahiz ikaslearen eskola-errendimendu eta motibazio handiagoa lortuz.

Talde homogenoak sortzeko ondoren adierazitako irizpideak hartu behar dira kontuan:

- Talde finko eta itxi bihurtzea eragotzi behar da
- Etiketak ezartzen dituzten eta ikasleen autoestimazioan ondorio negatiboak ekar ditzaketen ñabardurak saihestu behar dira
- Ordutegiaren zati txiki bat hartuko dute
- Funtsean, oinarritzko arloetan edota izaera instrumentalagoa duten horietan berariazko ikaskuntzei ekiteko eratuko dira, ikaskuntza horiek indartu edo indibidualizatzearen, ikasle-taldeak aldi baterako homogeno bihurtuz
- Beti talde txikitan lan egingo da

Taldeen neurria irakaslearen iharduera eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan elkarreaginezko harreman desberdinak eskatuko duten edukin-motaren eta antolamenduaren arabera izango da. Kasu gehienetan, beharrezkoa izango da edukin horien ikaskuntzarako talde-mota desberdinak konbinatzea. Hala, adibidez, ikaskuntza-estilo eta erritmo desberdinekin ikasleek ikasten dituzten prozedurazko edukinak lantzeko, ikasle bakoitzaren ezaugarri berezietara egin beharreko egokitzapenak ahalbidetuko dituen antolamendu-mota erabiliko da. Talde-banaketa egokienak, beraz, talde malguak, binakako edo bakarkako lanak izango dira, lan progresiboa eta sistematikoa ahalbidetuko duten iharduera-proposamenak eta materialak eskura izanik.

Bakarkako edo taldeko lan-proposamenek orekatuta egon behar dute eta asteko ordutegian zehar konbinatuko dira.

### ***Espazioaren eta denboraren antolamendua***

Esku-hartze pedagogikoa espazioak eta denborak antolatzen diren moduaren arabera da. Ikastetxeen egitura fisikoak, espazioek eta horiek erabiltzeko moduak irakasleek irakaskuntza/ikaskuntza prozesuaz duten ikuskera adierazten digute. Espazioaren antolamendua ikasleek eta irakasleek irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan betetzen duten zereginaren arabera da. Irakaskuntzaren zeregina ezagutzak transmititzea dela eusten dion ikuskerak espazio ordenatuak besterik ez ditu behar irakaslearen mezua ikasleei helarazteko. Ordea, ikaslea irakasleekin eta ikaskideekin elkarreaginean bere ikaskuntzak eraikitzen dituen osagai aktibo bihurtzen denean, espazioa antolatuko den moduak taldeak eratzea eta giza eta material-baliabide desberdinak antolatzea ahalbidetu behar du, hain zuzen ere hezkuntza-asmoen eta ikasgelan garatuko diren iharduera-motaren arabera. Ikasgelako espazio finkoak izan daitezke, zeregin jakin bat garatzeko beharrezko materialak eskura izanik (liburutegirako zona, lan-proiektu jakin batzuk garatzeko zona, etab.), edo ikasgelatik kanpoko espazioak izan daitezke, lan jakin batzuk garatzeko (mintegiak, laborategia, liburutegia, eskola-baratza, etab.).

Denboraren antolamendua beste aldagai batzuetan hartuko diren erabakien arabera izango da: lan-proposamen mota eta berau garatzeko jarraitutako sekuentzia, edukinen antolamendua, etab. Ordutegia denbora-modulu finkoetan banatzeak -ia gehienetan ordubetekoak- ikasgelan iharduteko aukerak baldintzatzen ditu. Oso zaila da, edo



ezinezkoa, lan-mota jakin bat ikasgela batean garatu ahal izatea ordutegiaren egitura malgua ez bada. Proposatutako zeregina azalpenak egitera, ikastera edo bakarka ariketak egitera mugatzen denean, denborari dagokion faktoreak ez du garrantzirik; ordea, elaborazio-prozesu konplexuak berekin dakartzaten talde-lanak proposatzen direnean, aldi laburrak muga nabarmen bat izan daitezke. Beraz, asteko ordutegian denbora-modulu desberdinak barne hartu behar dira, garatuko diren lan-proposamen mota desberdinen arabera.

Ordutegiak taldeko ikasleen premia desberdinei -hezkuntza-premia bereziak barne-erantzuteko sortu beharreko irakaskuntza/ikaskuntza egoera desberdinak kontuan izanik ezarri behar dira. Lan batzuk aldi laburretan egin daitezke eta edukin batzuk ezin dira landu aldi luzeetan ikasleengandik espero den kontzentrazioagatik edo ahaleginarengatik. Ordea, beste iharduera eta edukin batzuetarako aldi luzeagoak behar dira. Ordutegiaren aukerak honako hauek izan daitezke: jakintzagai bakoitzerako denbora finkoak eta berdina asigmatzea edo iraunaldi aldakorrekoko moduluak ezartzea lan-proposamen motaren arabera (proiektuak, tailerrak, bakarkako lana, lan disziplinarra edo disziplinarrekota, etab.). Denboraren antolamendu malgua.

### ***Ikasleen lanaren jarraipena***

Ikasgelako lanaren antolamenduak irakaslearen eta ikasleen arteko etengabeko elkarreragina ahalbidetu behar du, ondoren adierazitako zereginak garatzea helburu izanik:

- Eskatzen duten ikasleei laguntza egokia eskaintzea
- Ikaskuntza-zailtasunak antzematea, laguntza pedagogiko egokiena eskaintzearen
- Edukin berriak irakastea edo aurreko edukinak indartzea
- Dagoeneko bukatutako zereginak aztertzea.
- Ikaskuntza-prozesu indibidualak ebaluatzea, ikasleak lortu nahi duena eta lortzeko modua ezagutzearen
- Ikasleei zeregina egiten ari diren moduaren eta lanean egiten ari diren aurrerapenen berri ematea

Elkarreraginezko irakaskuntza-eredu honek ikasleen ikaskuntza-premiei buruzko informazio garrantzitsua eta lan egiteko modua ezagutzea ahalbidetzen dio irakasleari, bakoitzaren desberdintasunei erantzun ahal izateko moduan. Elkarreraginezko irakaskuntzan, ikasgelan bi irakasle aldi berean egotea (irakasle tutorea eta laguntzako) lagungarria izan daiteke, horietako batek ikasgelaren kontrola bere gain hartzen duen bitartean besteak baldintza egokietan ikasleei bakarka edo talde txikietan laguntzen ihardun baitezake.

# Taldearen curriculuma definitzeko eredu bat

TALDE/GELAKO CURRICULUMA ZEHAZTEKO JARRAITU BEHARREKO PROZESUA.  
EBALUAZIOA.  
ERREFERENTEAK.  
ZCP Aurreko zikloa.  
CEIak Aurreko zikloa.  
TALDEAREN HASIERAKO EBALUAZIOA.  
HPBak antzematea.  
PLANGINTZA.  
Egokitzapenak Zikloko Curriculum-Proiektuan.  
Curriculum-Egokitzapen Indibiduala.  
GELAKO PROGRAMAZIOAK.



## Taldea ezagutzea. Hasierako ebaluazioa

Talde baten curriculuma definitzean komeni da bertako irakasleek neurri batzuk hartzea, curriculumaren alderdi edo osagai desberdinen inguruan erabakiak hartzera bideratuak (zer irakatsi, noiz eta nola, prozesua ebaluatzen neurriak), horiek ikasle-talde jakin batentzako hezkuntza-erantzun mota jakin bat osatuko baitute. Hartutako erabakiak ikasleei gehiago egokituko dira horien ezaugarriak ezagutzen badira, eta hori ikasturtearen hasieran proposatuko den ebaluazio baten ondoren jakingo da.

Hasierako ebaluazioaren bidez irakasleek oinarri erreal bat izango dute hezkuntza-arloko esku-hartze konstruktibo bat planifikatzeko. Beraz, ziklo edo maila baten hasieran egingo da, beti ere irakasleek ikasle-talde jakin baten edo ikasle jakin baten curriculum definitzeko abiapuntua ezagutzen ez badute.

### ***Hasierako ebaluazioaren xedea eta funtzioak. Zertarako:***

Ebaluazio honen *funtsezko helburua*, ahalik eta indibidualtasun eta sakontasun handienarekin, taldeko ikasleek burutu berri duten zikloaren helburuak eta edukinak, oinarritzotzat edo nukleartzat jotakoak, zein neurritaraino lortu dituzten jakiten laguntzea da, oinarri erreal baten gainean hasi berri den zikloari edo mailari dagokion irakaskuntza/ikaskuntza sekuentzia diseinatu ahal izateko.


Ebaluazio-prozesu honetan zehar, irakasleek honako alderdi hauek ezagutu ahal izango dituzte: burututako ikaskuntzak ikasleak zein neurritaraino bereganatu dituen, behar duen laguntza handia eta etengabea ote den edo prozesuan zehar hitzezko euskarriren batekin edo laguntza grafikoekin nahikoa ote duen, egiten dituen akatsak sistematikoak ote diren, etab. Ikasleak zereginaren aurrean hartutako jarrera, berdinen arteko lankidetzeta-maila, eta irakasleekin izan ohi duen elkarreragin-mota (galderak egiten ditu, zai geratzen da, antsietatea antzematen zaio, etab.) informazio jasotzeko beste aldagai batzuk izango dira.

Batzuetan, hasierako ebaluazioak ikasle jakin batek taldearekin konparatuz nahiko gaitasun-maila txikia duela (arloan batean, batzuetan edo guztietan) antzemateko balio dezake, proposatutako oinarritzko iharduerak ikasle horrek erantzuteko duen gaitasuna gaititzen baitute. Kasu horietan, ebaluaziorako erreferentea aldatu egin beharko da (beheragoko zikloak) taldearen ebaluazio-prozesua planifikatzeko erabilitako horrekiko.

#### **TALDEAREN HASIERAKO EBALUAZIOA.**

#### **HPBak antzematea.**

#### **CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUALA.**



Zenbait kasutan, ikaslearen garapenari lotutako zenbait alderdiri buruzko (kognitiboa, linguistikoa, sozioafektiboa, etab.) ebaluazio osagarri baten beharra somatuko da, eta horietan ikastetxe barruko nahiz ikastetxeaz kanpoko laguntza-zerbitzuen lankidetzeta jaso ahal izango da (orientatzaileak, gela egonkorreko edo laguntzako gelako

irakasleak, talde multiprofesionalak, Itsuentzako Baliabideen Zentroak, Entzumen eta Hizkuntza-arloko Irakasleak, etab.).

Hasierako ebaluazioaren prozesuan lortutako informazioa aztertu eta ikasle horren hezkuntza-premiak definitu ondoren, haxe atera dezakegu ondorio gisa: ikasleak dituen ezagutzek, erabili ahal izan diren laguntza-mota guztietara jo arren, ez diotela utziko bere adinari dagokion zikloko curriculumean sartzen eta, beraz, curriculum-plangintza indibidual eta pertsonal bat beharko duela, hain zuzen ere Curriculum-Egokitzapen Indibiduala deitzen diogun dokumentuan azalduko dena.

Gainera, gerta daiteke hasierako ebaluazioaren prozesuan zehar taldean oso gaitasun-maila handiko (curriculumaren arlo batean, batzuetan edo guztietan) ikasleren bat antzematea. Kasu horietan, erantzun-mota Curriculum-Egokitzapen Indibidualean ere jasoko da, eta horren erreferentea ikasten ari den ondorengo zikloetako curriculumak izan daiteke.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak diseinatzeko eta lantzeko eredu bat dago, DBHrako oso gida baliagarria eta egokitzen erraza izan daitekeena (laguntza-materialak Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egiteko. Haur eta Lehen Hezkuntzako Etapak -1. zkia.- Curriculum-materialen bildumak).

### ***Hasierako ebaluazioa diseinatzeko erreferenteak. Zer ebaluatu:***

Hasierako ebaluaziorako erreferente generikoa aurreko zikloan edo etapan planifikatutako eta garatutako edukin oinarrizkoak eta nuklearrak izango dira, horiek bereganatzea funtsezkoa izanik ikasleak hasitako hezkuntza-aldian arrakastaz aurrera egiteko. Hala eta guztiz ere, DBHren barruan egoera desberdinak antzeman daitezke:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasten duen talde batentzako, hasierako ebaluazioa planifikatu eta egiteko erreferentea Lehen Hezkuntzako oinarrizko edukinak eta ebaluaziorako irizpideak izango dira, hain zuzen ere Lehen Hezkuntzaren Curriculum-Garapenari buruzko Dekretuan adierazten direnak (abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegorako Lehen Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duena).
- Taldeak DBHren lehen zikloa egin duenean, hasierako ebaluaziorako erreferentea taldean garatutako oinarrizko edukinak izango dira, hain zuzen ere Zikloko Curriculum-Proiektuan dagokion ziklorako azalduko direnak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea ere izan daiteke talde horretako kide, eta beretzako Curriculum-Egokitzapen Indibiduala landu eta garatuko da. Jakina, ikasle horren hasierako ebaluazioak aipatutako dokumentu horretan beretzako planifikatu eta bildu dena izango du erreferente gisa.


**ERREFERENTEAK.**

**EBALUAZIOA.**

**ZCP Aurreko zikloa.**

**CEIak Aurreko Zikloa.**

**TALDEAREN HASIERAKO EBALUAZIOA.**



Hasierako ebaluazioaren funtzio generikoen artean ondorengo hauek aipa daitezke:

Berriazko funtzio gisa ondorengo hauek aipa daitezke:

- Ikasleen ezaugarri indibidualak ezagutzea:
- Aurreko zikloko edo etapako edukinetan izandako lorpen-maila (garapen-zona erreala eta gertukoa)
- Ikaskuntza-estrategia pertsonalak ezagutzea (zer irtenbide hartzen dituen)
- Ikaskuntza-zailtasunak antzematea eta arlo bakoitzeko “hutsuneak”, akats sistematikoak, etab. ezagutzea
- Hasierako ebaluazio desberdina edo osagarria behar duten ikasleak zeintzuk diren antzematea, haientzako curriculum planifikatzeko
- Taldearen ezaugarri psikosozialak ezagutzea:
- Taldekideen trebetasun pertsonalak eta sozialak ezagutzea (jarrerak, elkarreraginak, etab.)
- Harremanetarako ohizko bideak ezagutzea. Berdinen arteko eta irakasleekiko elkarreraginak, laneko autonomi maila, lankidetzeta-maila, lehiakortasun-maila, etab.
- Ikaskuntza errazten dieten elementuak ezagutzea: materialak, laguntzak, denborak eta zereginetan kontzentratzeko moduak, etab.
- Aurretiazko edo ikasitako ezagutzei buruz kontziente izatea, bai eta talde-funtzionamenduari buruz ere: elkarren arteko eta helduekiko lankidetzeta, defentsa, etab.
- Talde gisa definitzen duten elementuak ezagutzea, gelaren eta antolamendua eta taldeen banaketa planifikatzeko.

### ***Hasierako ebaluazioa egiteko prozesuaren faseak. Nola ebaluatu:***

- *Ikasle bakoitzaren aurreko eskolatzeko-aldiari buruzko datuak aztertzea*
- *Hasierako balorazioarako iharduerak diseinatzea, aurreko zikloaren erreferentzia*
- *Curriculum-arloetan lortutako gaitasun-mailari buruzko hasierako ebaluazioa egitea*
- *Emaitzak aztertzea, programazioa lantzeko*

DBH hasterako ikasle gehienek gutxi gorabehera bederatzi kurtsok osatutako eskolatzeko-aldiko esperientzia metatu dute, eta horren arabera komeni da edozein azterketa *metatutako informazio akademikoa* biltzetik hasia (ebaluazioaren emaitzak eta

txostenak, indargarriak, curriculum-egokitzapenak edo behar izan duten beste edozein laguntza-mota, etab.).

Dauden datuen irakurketaren emaitza oso informazio esanguratsua izango da *hasierako ebaluazioa egiten den aldiaren irakaslearen arreta eskolatze-aldian zehar zailtasun-motaren bat izan duten edo desberdintasun nabarmenak somatu zaizkien ikasle horiei bereziki zuzentzeko* (erregistro-orriaren eredu).

Zereginak egitean behatutakoaren erregistro sistematikoa (batez ere irakasleak arreta berezia eskaini dien ikasleengan) prozesuaren ebaluazio kualitatiboagoa egitea ahalbidetuko du.

Eskola-historialaren informazio hori honako hauetan bilduta egon daiteke:

- Irakaslearen aurreko eskolatze-aldiaren legezko dokumentazioa, adibidez:
- Kurtso bakoitzaren bukaeran egindako Ebaluazio Indibidualizatuen Txostenak.
- Ebaluazioari buruzko Azken Txostena, etapa amaitzean aurrekoa ordezkatzeko duena.
- Eskolaketa-Liburua
- Lehen izandako Lehen Hezkuntzako ikastetxean gordetako espediente pertsonala (zenbait zirkunstantzian komeni da kopia bat eskatzea)
- Elkarrizketak, bildu beharreko informazioa egituratu ondoren egingo direnak, aurreko mailetako irakasleekin edo ikastetxe barruko nahiz kanpoko laguntzako profesionalekin (ebaluazio osatuagoa egitea komeni dela erabakitzen denean).

Aurretik esan bezala, *abiaburuko edo hasierako ebaluazio hau antolatzeko, curriculumaren erreferentea aurreko zikloa edo etapa izango da (ikasle batzuen kasuan izan ezik, orduan aurreko Curriculum-Egokitzapen Indibidualak zehaztuko baitu)*. Edukinen aukeraketa -zein neurritan bereganatu dituzten jakiteko- oinarritzkoetatik edo nuklearretatik hasita egingo da (ziklorako Curriculum-Proiektuan eta Curriculum-Garapenari buruzko Dekretuan bildutakoak).

*Ebaluazioa egiteko, irakasleak (informazio hori lortu badu) aurreko zikloan edo mailan egindako iharduerak planteatu ahal izango ditu, edota proposamen berriak sortu; proposamen horietan, hain zuzen, ikasleek aurreko ikasturtean egindako zikloko kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukinak bilduko dira, oinarritzkoetatik hasita.*

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, kasu batzuetan iharduera bereziak diseinatu edo prozedura indibidualizatuagoak edo ulermenari edo erantzunari buruzko ezaugarri jakin batzuetara egokituak erabili beharko dira. Komeni dela uste baldin bada, gelako irakasleak orientabide edo laguntza zuzena eska dezake ikastetxeko laguntzako profesionalei.

Ebaluazio hori eguneroko testuinguruan eta lehenengo hamabost egunetan egin daiteke, bai eta ikasturtearen lehenengo hilabetean edo hilabeteetan ere, irakasleen ustez talde jakin batean ebaluazio horretan lortu nahi den sakontasun-mailaren arabera. Nolanahi ere, prozesu horrek ikaskuntza-prozesuaren “eten” bat baino gehiago kurtso programaren osagai izan behar du; bere helburua zehatza eta ezinbestekoa curriculum

antolatzea da eta baliagarria da irakasleak ikasleen maila baloratu eta benetako informazioan oinarrituz plangintza errealista bat egin ahal izateko; gainera, ikaslearentzako ere mesedegarria izango da aurretik bereganatutakoa gogoratzeko eta oinarri hori sendotzeko, hortik abiatuta jarraituko baitu ikasten.

Erabiliko diren teknikak eta tresnak anitzak izan daitezke honako hauen arabera: ebaluazioaren xedea, lortu nahi dugun informazioa eta informazio horren helburua. Garrantzikoena hau da, baliagarriak izatea lortutako datu horiek hasiko den ziklorako edo mailarako Curriculum Proiektuan definitutako plangintza generikoa egokitzeko, aldi jakin batean zehar gelan elkarreragin sortuko den ikasle-talde jakin baten ezaugarriak aztertu ondoren.

Kontua ez da azterketa edo froga bereziak edo indibidualak egitea, ikasgelan eguneroko iharduera-proposamenak prestatu eta aprobetxatzea baizik. Aurretik esan bezala, aurreko zikloan edo mailan dagoeneko garatutako zereginak izan daitezke edo baita proposamen berriak ere, denbora horretan ikasleek bereganatu dituzten edukinak ezagutzera bideratuak, hain zuzen. Beharrezkotzat jotzen den kasu guztietan jarraipen indibidualizatu bat eginez gero, curriculumaren plangintzarako beharrezko abiaburua ezagutuko dugu (erregistro-orria).

### ***Gelako Programazioa***

Ikasle-talde jakin bati egokitutako zikloko edo mailako curriculum bat diseinatzeko, lehen aipatu dugun bezala, erabaki batzuk hartu behar dira bere osagaiei buruz. Erabaki horiek honako pausu hauetan oinarritu behar dute:

- Ikasle bakoitzaren aurreko eskolatzeari buruz bildutako datuak eta informazioa aztertzea, bilakaera berezia izan duten ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko, hasierako ebaluazioa diseinatu eta egiteko.
- Hasierako ebaluazioan bildutako datuak aztertzea, ezagutu den oinarrizko lerrotik abiatuta (taldearen eta norbanakoaren ezagutzak eta jarrerak) curriculumaren inguruan erabaki batzuk hartzeko.
- Erreferente gisa hasiko den ziklorako ikastetxe-mailan aurrikusitako plangintza generikoa, hau da, Zikloko Curriculum-Proiektua erreferente gisa hartzea (hasiko den zikloa edo maila bukatzen denean lortu beharreko helburuak).

#### ***Abiaturuko erreferentea.***


#### **HASIERAKO EBALUAZIOAN LORTUTAKO INFORMAZIOA.**

#### ***Helmugako erreferentea.***

#### **HASIKO DEN ZIKLOKO CURRICULUM-PROIEKTUA.**

#### **TALDEARI EGOKITUTAKO ZIKLOKO CURRICULUM-PROIEKTUA.**

#### **GELAKO PROGRAMAZIO EGOKITUA.**



Gelako programazioek gida bat edo antzeko zerbait izan behar dute hezkuntza-arloan esku hartzeko, bai eta “dokumentu” baliagarri eta funtzional bat ere, non nahiko aldi laburretarako Zikloko Curriculum-Proiektuan (ZCP) edo Curriculum-Egokitzapen Indibidualetan (CEI) -ikasleren batentzako erreferentea dokumentu honetan azaltzen den kasuetan- bi urterako bildutako plangintza orokorra zehaztu eta argitzen den. Beraz, gelako programazioak egiteko erreferentzi dokumentuak honako hauek izango dira:

- Zikloko Curriculum-Proiektua, hasierako ebaluazioan antzemandakoaren arabera egindako egokitzapenekin.
- Curriculum-Egokitzapen Indibidualak, ikasle jakin bati erantzuteko landu behar izan badira.

Gelako programazio progresiboak/ek hezkuntza-maila edo ziklo baterako jarraitu beharreko ibilbidea jaso behar dute. Plangintza horrek ikasle bakoitzari laguntzeko ibilbide guztia azalduko du (ikasle horietako askok antzeko erritmoa izango dute ezagutzak bereganatzean eta ohizko irakaskuntza-estrategiak erabiltzetik etekinak aterako dituzte), hasierako gaitasun jakin batzuetatik hasi eta horietan sakontasun-maila handiagoa lortzeraino edo berri batzuk garatzeraino. Abiaturua ezagutza errealak baldin badira (hasierako ebaluazioa), lortu beharreko xedea Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan edo horren ezean Curriculum-Garapenari buruzko Dekretuan ziklo horretarako aurrikusitako helburuak izango dira.

Ikaskuntzetan aurrera egin eta horietan sakontzea eta aldi jakin baterako irakaskuntza/ikaskuntza prozesu guztiaren artikulazioa gelako programazioan azaltzen da eta unitate didaktikoez edo aldi laburragoetarako programazioek osa dezakete. Horietan, curriculum bereziak adierazi daitezke, *zer, nola eta noiz irakatsi* edo zein *irizpiderekin ebaluatu* dagokienez, baina espazioa eta denbora guztientzako bera dela kontuan izanik curriculum bat baino gehiago garatu ahal izateko neurri-motak (talde-banaketa, lan pertsonalerako denbora irakasleari arreta indibidualizatua eskaintzea ahalbidetzeko, laguntzako irakasleen esku-hartzea, etab.) hezkuntza-ihardunerako gidan argitu behar dira, hau da, aldi jakin baterako edozein programaziotan.



## Hezkuntza-premiak dituzten ikasleentzako erantzunaren antolamendua

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzunaren antolamenduan ikastetxeko irakasle guztiek parte hartzen dute, nahiz eta erantzukizun-maila desberdinak dituzten ikasle horien curriculumaren plangintzan eta garapenean. Alde batetik, beharrezkoa izango da aniztasunarekiko arretaren inguruko neurriak hartzea. Neurri horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskaini ahal izango zaien erantzun-mota zehaztuko dute eta behar-beharrezkoa izango da irakasle-talde osoaren partaidetza. Curriculumaren aldagai desberdinen gainean (zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu) erabakiak hartzen direnean ikastetxearen curriculum-proiektua (ICP) eta taldekoa (programazioak) definitzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak kontuan hartu behar dira. Ezaugarri horiek, neurri batean, ikasle horiengan antzemandako urritasun-motak eta ordura arte eskaini zaien erantzun-motak zehaztuko dituzte.

Ikasle horientzako hezkuntza-erantzuna antolatzeko modua desberdina izango da ikastetxearen arabera, eta planteatzen dituzten hezkuntza-premia berezien eta ikastetxearen eta irakasleen ezaugarrien menpe egongo da (taldean lan egiteko gaitasuna, ikasle horienganako jarrerak, antolatzeko modua, ikasle horiekin garatuko den lana zein izango den argitzea, etab.).

Hezkuntza-etapa honetan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek hezkuntza-prozesu desberdinak jarraituko dituzte planteatzen duten zailtasun-mota eta mailaren arabera, eta beraz berariazko edo aparteko izaera handiagoa edo txikiagoa izango duten hezkuntza-neurriak hartu beharko dira.

Hona hemen ikasle horientzako hezkuntza-erantzuna aztertzeko irizpide orokorrak:

- Proposamen didaktikoak indibidualizatzea, dituzten ahalbideak eta mugak kontuan izanik (komunikazio, ezagutza, etab. arloetan).
- Hezkuntza-erantzuna ahalik eta testuinguru zabalenean eskaintzea, testuinguru arruntak eskaini ahal izango dituen aukera guztiak aprobetxatuz.
- Ikasle guztientzako proposatutako gaitasun amankomunak garatzea, planteatutako helburuak eta edukinak desberdinak izan arren.

Curriculum desberdintasun indibidualen arabera eta testuinguru jakin batean definitzeko prozesuan hezkuntza-ibilbide batzuk eratuko dira. Hala, urritasun-mota jakin batzuen (sentsorialak eta motrizak) ondorioz sortutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle batzuentzako hezkuntza-ibilbidea berdina izango da arrakastaz aurrera egiten ari direnen aldean, baldin eta beharrezko egokitzapenak eginez curriculumerako sarbidea errazten bazaie.

Maila desberdinetako minusbalio kognitibo orokorrek eragindako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako -kontuan izanik zailtasun handiak dituztela oinarritzko hezkuntza-helburuak lortzeko- ezinbestekoa izango da gela arruntean eta laguntzako gelan garatuko diren curriculum-egokitzapen nabarmenak lantzea -lehen zikloan 16

urterekin eskolatzea aurrikus daitekeelarik-. Ikasle horien prestakuntzak Gizarte-Garantiako Programen bidez jarraituko luke, helduen munduan eta lan-munduan sartzeko gai izan daitezen. Ikasle horiek etapari dagokion titulazioa ezin izango dutela lortu aurrikus badaiteke ere, hasieratik ezin da baztertu graduatu-titulua lortzeko aukera, beti ere etapa amaitzean egindako ebaluazio integratzailearen barruan DBHko gaitasun guztiak lortu badituzte.

Azkenik, larriki minusbaliatutako ikasleentzako proposatutako hezkuntza-ibilbidearen helburua kolektibo honen oinarritzko premiei erantzutea da, gainerako ikasleentzako proposatutako hezkuntza-helburuetatik aldendu gabe. Kolektibo horren ezaugarriek eta beren hezkuntza-premien larritasunak eraginda, arlo guztien -ardatzekoak eta aukerakoak- curriculum arrunta nabarmen egokitu behar da, eta ikastetze arrunt bateko gela egonkorra izango da testuinguru egokiena.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzunaren antolamenduak nahitaez beren premiei eta ondorengo garapenari egokitutako curriculum bat espazio (gela arrunta, laguntzako, egonkorra, etab.) eta denbora jakin batzuetan definitzea dakar berekin, ikastetzeko profesional desberdinen iharduera koordinatuaren bidez (irakasle tutorea, arloko irakaslea, hezkuntza bereziko irakaslea, etab.) eta hala badagokio ikastetxeaz kanpoko beste laguntza batzuekin (Itsuentzako Baliabideen Zentroa., logopeda, fisioterapeuta, eta.).

Curriculum egokitzeko erreferentzi gisa DBHko helburu orokorrak hartzen diren arren, aipatzen dituzten gaitasunak ahal den guztia garatzearen hain zuzen, beharrezkoa da helburuak eta edukinak egokitu eta baztertzea eta, horren ondorioz, ebaluaziorako irizpideak aldatzea. Gainera, hezkuntza-etapa honetan zehar curriculum izaerako beste neurri batzuk daude, esaterako, aukerakotasuna eta curriculumaren dibertsifikazioa, arloko edo etapako curriculum-egokitzapen indibidualekin batera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculum planifikatzeko aprobeztatu daitezkeenak.

Hala eta guztiz ere, zenbait egoeratan aparteko neurri batzuk bildu behar dira, zeren eta curriculumaren elkarren segidako zehaztapenei irakasleentzako lagungarriak izango diren baliabideak erantsi behar baitzaizkie plan indibidualak eratzeko, material bereziak lantzeko, erabaki amankomunak hartzeko, arloka diseinatzeko eta orientatzailearekin eta laguntzako irakaslearekin batera praktikan jartzeko, eta gela barruan nahiz laguntzako gelan laguntzak antolatzeko, programa indibidualizatuaren ezaugarrien eta aurretik hartutako erabakien arabera.

Hasierako ebaluazioak izan behar du beti abiaburua. Ebaluazio hori, hain zuzen, ikaslearen aurreko eskolatzeko-aldiari buruz bildutako informazioaren azterketan oinarrituko da (espediente, eskolaketa-liburua, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak, etab.) beharrezkotzat jotako berriazko ebaluazio-iharduerekin osatuz. Azterketa hori baliagarria izango da egokitutako curriculum antolatzeko oinarri gisa, bere azken erreferentzia DBHko gaitasunen lorpena izanik; ordea, gaitasun horien lorpen-maila kasu gehienetan txikiagoa izango da gainerako ikasleen aldean eta, beraz, esanguratsuenak aukeratu behar dira, besteak ezabatuz eta/edo beste helburu eta edukin batzuk horien ordeztuz, edota curriculum-arloak eremu desberdinen arabera banatuz: komunikazioa, autonomia pertsonala, sozializazioa eta gizarte-partaidetza eta bitziza aktiboa.

Erantzun-ahalbideak eta erantzun hori antolatzeko moduak anitzak izango dira eta ikastetxeek beren lana ikasle guztiekin egituratzean antolamenduan izango duten malgutasun-mailaren menpe egongo dira. Ondorengo eskeman, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna antolatzen denean kontuan hartu beharreko elementuak edo aldagaiak adierazten dira.

Ondoren, aurreko ibilbideak sakonago deskribatzen saiatuko gara. Eredu gisa hartutako egoera orokorrak dira eta, beraz, ez datoz bat ikasle baten egoera zehatzarekin; pertsona bakoitzarengan urritasunak agertu edo antzematen diren moduaren arabera hezkuntza-ibilbide desberdinak eratuko dira, ahalik eta erantzun pertsonalizatuena eskaini ahal izateko.

### ***Curriculumaren antolamendua***

Orokorrean, urritasun sentsorial edo motrizen ondoriozko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ia gehienetan denbora osoz jarraitu ahal izango dute gela arruntean, nahiz eta, premia horiei ondo erantzuteko beharrezkotzat jotzen bada, irakasle arruntekin batera lan egingo duten laguntzako irakasleen beharra eta baliabide tekniko edo pertsonal egokien erabilera kontuan hartuko diren. Ikasle-talde hori, laguntza egokiek, graduatu-titulua lortzeko adierazitako gaitasunak garatzeko gai izango da eta, horren ondorioz, derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza-sistema arautuan jarraitzeko: Batxilergoa edo II Lanbide-Zikloa, hala nahi izanez gero. Ikasle horien premia generikoei erantzuteko curriculum-egokitzapen indibidualak egin beharko dira, eta horretarako edozein arlotan curriculumerako sarbidea izateko laguntza teknikoak erabili, eta arlo jakin bateko edukinak edo baita helburuak ere egokitu behar dira (gorputz-hezkuntza, adibidez, mugimen urriko ikasleen kasuan).

Beste kasu batzuetan, Lehen Hezkuntzako etapan urtebete gehiago egon diren eta dagoeneko Curriculum-Egokitzapen Indibidualizatua egin zaien ikasleak dira. Egokitzapen hori, hain zuzen, Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako hasierako ebaluazioaren oinarria eta erabakiak hartzeko abiaburua izango da, eta arlo guztietan egingo den lana zehaztu eta beharrezkoa izanez gero laguntzako gelan lantzeko izango diren alderdi bereziak adieraziko ditu. Etapako egokitzapenak ere deitzen zaie, arlo batzuetako edo guztietako helburuetan eragina baitute.

Curriculum-Egokitzapen Indibiduala egiteko erreferentea Lehen Hezkuntzako helburuak izango dira, curriculumean sartzeko beharrezko laguntza teknikoak kontuan izanik.

Ikasle horiek gehienek betiko edo puntualki laguntza teknikoren bat edo batzuk beharko dituzte (gurpil-aulki, ordenadore, entzumen-protesi, etab.tik hasi eta komunikatzeko ahozko hizkuntza ez diren bide alternatiboak erabili, ikusmen-estimuluak estimulu ukimenezko edo entzumenezko bihurtu, komunikazio-sistema gehigarriak erabili, espazioak aldatu, etab.eraino) bai eta gelako antolamenduaren egitura aldatzea ere, gelako gune jakin batean jartzetik hasi (gertatzen ari denari buruzko informazioa ahalik eta modu errazenean lortzeko) eta altzaria egokitu edo aparatu bereziak erabiltzeraino.

Beste hezkuntza-neurri bat Curriculum-Dibertsifikazioa da, hau da, curriculum desberdinak eratzea.

Dibertsifikazioaren barruan erantzun-mota desberdinak har daitezke euskarri gisa erabiliko den programa batean oinarrituz. Aldagai desberdinak erabiliko dira, horien artean, arloen konfigurazioa eta programaren iraunaldia (1 edo 2 urte) ikasleen heterogenotasunaren arabera. Programa horretan oinarrituz, ikasle bakoitzak behar dituen alderdiak bildu ahal izangod ira, curriculum-dibertsifikazioak curriculum orokorraren gainean aukeraketa bat egitea baitakar berekin.

Minusbalio fisiko edo sensorialek eraginda hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ez dute zertan horrelako programa batean erabat sartuta egon behar, programa osatzen duten zatiren baten onuradun izatearekin nahikoa izan baitaiteke, azken finean, partaidetza-formula desberdinak irekitzea baita kontua, maila txikietatik handietara, gela arruntaz kanpoko arreta berezitik hasi eta gela horren barruko arreta dibertsifikaturaino doan continuum baten barruan.

Programaren xede diren ikasleen heterogenotasunaren barruan, adimen-urritasunei lotuta ez dauden minusbalio motrizek edo sensorialek eragindako premiak kontuan hartu behar dira, ikasle horiek programa honen indibidualizazioaren onuradun izan eta Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ahal izateko.

### ***Irakasleen antolamendua***

Ikastetxearen orientabide eta laguntza-zerbitzuaren zeregina irakasleei aholkularitza eskaintzea da, zeren eta aurretik deskribatutako ezaugarriak (curriculumaren sarbiderako egokitzapenak) betetzen dituzten ikasleak denbora guztia edo ia gehiena gela arruntean egongo baitira. Bestalde, zerbitzu hori ikasleen prozesu edo bilakaera globalaren jarraipenaz ere arduratuko da.

Ikastetxearen orientabide eta laguntza-zerbitzuaren jarraipen-funtzioaz gain, zenbait kasutan hezkuntza-programari ikastetxeaz kanpoko laguntzako beste profesional batzuen presentzia gehitu beharko zaio jarraipen bat egin edo ikasleekin batera curriculumaren zati bat garatzeko. Profesional horiek, adibidez, Itsuentzako Baliabideen Zentrokoak izan daitezke, eta berariazko programaren zenbait alderditaz arduratu ahal izango dira, esaterako: irakasleentzako ihardunbideak eskaintzea eta baliabide material bereziak, hau da, Braille sistemako liburuak, grabaketak, etab. behar diren unean eskura egon daitezen saiatzeko. Beraz, agente desberdinen arteko koordinazio-gune jakin batzuk aurrikusi behar dira, hezkuntza-arloko esku-hartzea bateratua eta koherentea izan dadin.

### ***Curriculumaren antolamendua***

Ikasle horien irakaskuntza-prozesuan eragiten duten zailtasun kognitiboak direla-eta eskainiko zaien laguntzaren iraupena eta mota erabaki behar dugu, egingo zaien edo aurreko zikloan egin zaien Curriculum-Egokitzapen Indibidualizatua kontuan izanik, eta erreferentzia gisa etapako helburu orokorrak hartuz.

Kasu gehienetan beharrezkoa izango da Lehen Hezkuntzako etapako helburuekin zerikusia duten edukinak azpimarratzea eta, orokorrean, ikasle horiek ez dutela etapari dagokion titulazioa lortuko esan daiteke, 16 urte beteko baitituzte lehen zikloan zehar edo berau amaitzean.

Ikasle horientzako curriculumak eratzeko beste elementu bat ikastetxeak eskaintzen dituen aukerako irakasgaien eskaintza kontuan hartzea da, bai eta baldintza jakin batzuk betetzen ote diren ere:

- aukerako irakasgai horien ikuspegiak eta ihardueren antolamenduak gaitasun-maila desberdina duten ikasleekin lan egitea ahalbidetzea
- ikasleengan motibazio handiagoa piztea.
- autonomia pertsonala, sozializazioa, pertsonarteko harremanak, komunitatean moldatzea, gizarte-trebetasunak, etab. bultzatzea.
- izaera praktikoa eta lanbide-aurreko izaera izatea.

Ardatz-arloen barruan, oinarrizko teknologia, gorputz-hezkuntza, arte eta musika-irakaskuntzak, informatika, tailer desberdinak eta eskolaz kanpokoak eta osagarriak diren iharduera gehienak ingurune egokiak dira integratzeko eta ikaskuntza esanguratsurako eta funtzionalerako bitartekoak izan daitezke. Gainerako arloak ere, beren edukinak eta metodologiak ikasle guztientzako iharduera anitzak ahalbidetzen dituztenean, ingurune egokiak dira erritmo, interes eta sakontasun-maila desberdinak kontuan hartuz.

Irakasleak, orientatzailearen eta laguntzako irakaslearen laguntzarekin, ikasleari bere talde/gelan integratzen lagun diezaioke bai eta jarrera parte-hartzaileak eta integratzaileak sustatu ere, ondoren adierazitako **estrategiak** erabiltzen baditu:

- Garatu nahi den komunikazio-eremurako espazioak eta denborak kontuan hartzea
- Irakasleak ikasleari bere taldean integratzen lagunduko dioten jarrerak eta jokabideak erakustea
- Gela taldearen garapena indartzeko moduan antolatzea
- Ikasleek ikasle jakin bati taldean integratzen lagunduko dioten jarrerak eta jokabideak erakustea
- Talde-lana indartzea
- Ikasle bakoitzak dagokion ikaskuntza-erritmoaren eta estiloaren arabera ikaskuntza-prozesu pertsonalizatua jarraitzeko aukera izatea.
- Ikaskuntza-prozesuen pertsonalizazioa erabakitzea: talde-lana, indargarraik, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak, etab.
- Zikloan, mailan edo etapan, taldean nahiz bakarka lan egitea ahalbidetuko duten materialak eta/edo baliabideak

Goian aipatutako estrategiez gain, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle bakoitzaren programak autonomia pertsonala, trebetasun sozialak eta komunikazioari lotutako alderdiak garatzea ahalbidetuko dioten elementuak barne hartu behar ditu, gelako programaziotik arlo bakoitzean izaera funtzionalagoa duen guztia aprobetxatuz, eta eskola-curriculumak kontzeptuzko edukinak ez ezik trebetasunak, prozedurak eta jarrerak ere barne hartzen dituela ahaztu gabe.

Hala eta guztiz ere, curriculum arruntetik edukin jakin batzuk ezabatu behar dira, hain zuzen ere egokiak ez direnak nolabaiteko abstrakzio-maila eskatzen dutelako edo

ikasleak bereganatu ez dituen aurretiazko ezagutzak behar direlako, eta taldeko gainerakoentzako aurrikusi ez diren beste batzuk gehitu, hain zuzen ere hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako interesgarriak izan daitezkeelako eta beren autonomia pertsonala garatzeko eta eguneroko bizitzan moldatzeko trebetasunak indartzen dituztelako.

Curriculumaren zenbait edukin, kontzeptuzkoak batez ere, Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasketen jarraipenerako (Batxilergoa, II Lanbide-Zikloak) oinarri direlako soilik justifikatzen dira. Edukin horien ordez, ikaslearen autonomia pertsonalari eta sozialari buruzko edukinak barne hartu behar dira, hau da, ikasleari eguneroko bizitzan autonomo izatea (elikadura, higiena, jantzia, etab.), gizartean moldatzea (ingurunea ezagutzea, bere kasa lekuz aldatzea, etab.) eta gauzak manipulatzeko oinarrizko trebetasunak izatea ahalbidetuko diotenak, eta Gizarte-Garantiako prestakuntza-modalitatearen batean eta lan-munduan sartzeko prestatuko diotenak.

### ***Irakasleen antolamendua***

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokion etapan, laguntzako gela baliabide didaktiko integratzaileak dituen espazio fisiko bat da, eta irekita dagoenez, hau da, gela horri propio atxikitako ikaslerik ez dagoenez, ikasleek eta irakasleek aukera dute gela arruntaz gain laguntzako gela hori erabiltzeko, aldeztatik planifikatutako iharduera didaktikoen arabera. Bertara adimen urriko ikasleak hezkuntza-arreta berezia jasotzera joan daitezke, baina baita gainerako ikasleak ere, adibidez, laguntzako gelan egon ohi diren tresna eta material didaktiko jakin batzuen erabilerarekin zerikusia duten curriculum-edukinak, eta sentsibilizazioari, laguntzari eta elkartasunari lotutako prozedurak eta baloreak lantzera.

Laguntzako gelan, adimen urriko ikasleak integratzea ahalbidetzeko alderdi guztiak barne hartzen dira, eskola-egitura osoan arreta espezializatua eta indibidualizatua behar duten ikasleak, alegia. Bi profesionalak, hau da, arlo arrunteko irakaslea eta laguntzako irakaslea, ikasle-taldearen gainean aldi berean elkarreragiteko aukera kontuan hartu behar da hezkuntza-erantzuna indibidualizatuagoa izan dadin. Horretarako, koordinazio handia behar da bakoitzak talde guztiarekin garatuko duen esku-hartze mota zehazteko, eta, beraz, klaseetan elkarrekin batera egoteaz gain, batera egingo dituzte ikasle batzuekin egin beharreko lan indibidualizatua eta koordinazio eraginkorra lortzeko dagokion denboraren aurrikuspena.

Laguntzako gelaren eta gela arruntaren antolamendu malguak aldi berean gaitasun-maila desberdina duten nerabeekin lan egitea ahalbidetzen du, lankidetzazko taldeak sortuz edo talde-banaketa desberdinek eskaintzen dituzten aukera guztiak barne hartuz.

Laguntzako gelaren antolamenduak eskaintzen dituen aukerak anitzak diren arren, honako alderdi hauek ziurtatu behar dira:

- Erreferentzi espazio finko bat, bertan iharduerak taldean nahiz bakarka garatu ahal izateko.

- Esperientziak eta trebetasunak lortzeko espazio bat, autonomia pertsonalari, eguneroko bizitzari (etxeke lanak, higiena, etab.), gizartean moldatzeari, etab. buruz.
- Ikastetxeko beste espazio batzuk: informatika eta teknologi gela, gimnasioa, etab., laguntzako espazio gisa erabil daitezkeenak.

Hona hemen laguntzako irakasleak bete behar dituen zeregin batzuk:

Hezkuntza-ihardueran laguntzea: horretarako dagokion arloko irakaslearekin koordinazioa lortzeko denbora antolatu behar da honako zeregin hauetan esku hartzeko: gelako programazio orokorraren garapenean, hasierako ebaluazioan, materialen egokitzapenean, eskemen elaborazioan edo material didaktiko berezien ekarpenean, etab., beti ere profesional desberdinen esku-hartzea bategiteko asmoz.

Zeregin horiek betetzeko gela arrunta nahiz laguntzako gela erabili ahal izango dira. Printzipio orokor gisa, ahal den guztietan, ikasle horiek beren ikaskideekin batera gela arruntean egotea komeni da, laguntzako gelan hezkuntza-arretari buruzko beste irizpide batzuk konbinatuz. Baina, badira beste iharduera batzuk planteatuta dauden moduagatik laguntzako gela bezalako testuinguru bereziagoetan garatu behar izango direnak.

Adimen urriko ikasleen prestakuntza-prozesuak 16 urte bete ondoren jarraitzen du, Gizarte-Garantiako programen bidez, zereginen ikaskuntzaren modalitatearen barruan (*Ikus CEI-IDCren dokumentu monografiko hau: "Zereginen Ikaskuntzaren Programarako Curriculum Esparrua"*) eta/edo Lanbide-Hastapeneterako Ikastegietan (LHI), horietan oinarritzko ezagutzen curriculuma lanbide-arlo jakin bati lotutako eta lanbide-aurreko izaera duen berariazko curriculum batekin konbinatzen baita, bizitza heldurako eta lan-munduan sartzeko prestatuz.

### ***Curriculumaren antolamendua***

Ikasle minusbaliatu larrirentzako proposatutako hezkuntza-ibilbidearen helburua kolektibo honen oinarritzko premiei erantzutea da, gainerako ikasleentzako proposatutako hezkuntza-xedeetatik aldendu gabe.

Ikasle horien ezaugarriak eta hezkuntza-premiak ikusita, behar-beharrezkoa da arlo guztietan -ardatzekoak nahiz aukerakoak- curriculuma nabarmen egokitzea, eta ikastetxe arrunteko gela egonkorra da horientzako hezkuntza-testuinguru egokiena.

Gelak diseinatzeko garaian ikasle horiengan antzemandako premiak kontuan hartu dira, baliabide egonkor batzuk eskura izan ditzaten, esaterako:

- Tutorea bat dago, Pedagogia Terapeutikoan espezializatua
- Laguntzaile bat dago
- Ratioa 4-5 ikasle gelako da
- Curriculumak garatzeko material eta ekipamendu berezia dago
- Ikastetxe arruntean integratutako berariazko espazio fisiko batean daude

Hezkuntza-premia bereziak izan arren, testuinguru arruntean ahalik eta partaidetza handiena izan dezaten lortu behar da (espazio amankomunak erabiltzea: patioa, jantokia, gimnasioa, etab.; gainerako ikasleekin batera iharduerak egitea: irteerak, ibilaldiak, etab.).

Nolanahi ere, gela horiek besteetatik bereizten dituzten alderdiak curriculumari dagozkionak dira, hau da, ikasle horiekin erabiliko den programaren helburu, edukin, metodologi, etab.ekin zerikusia dutenak.

Gela egonkorrean eskolatutako ikasle minusbaliatu larrien kasuan, irizpide batzuk hartu beharko dira kontuan beren garapena lortzeko ezinbestekoak diren helburuak lantzeko garaian:

- Helburuak, materiala eta iharduerak adin kronologikora egokitzea. Urritasunak eragindako premien intentsitateari, hezkuntza-maila honetan, adin kronologikoari lotutako beste premia batzuk gaineratuko zaizkio. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, premia horiek lan/lanbide etorkizunari, aisia eta astialdiari, eta autonomia pertsonal eta sozialari lotuta agertzen dira.
- Ingurune integratuetan parte hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak aukeratzea, horiek lortzeko denbora gehiago emanez.
- Ikaskuntza funtzionalei lehentasuna ematea eta ikaskuntza bizitza errealeko inguruneetan eta egoeretan antolatzea, horietan zuzenean aplikatu ahal izango baitira ezagutzak.

Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan integratutako Gela Egonkorreko Curriculum-Proiektua lantzeko ereduak CEI-IDCren honako dokumentu monografiko honetan garatzen dira: “Garapen-nahaste orokorrak dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamendurako orientabideak”.

### ***Irakasleen antolamendua***

Gela egonkorreko tutorea ikasle horien curriculumua antolatu eta garatzeaz arduratzen da, hari baitagokio zeregin hauek betetzea: bere tadearen tutoretza-lana bete, ikasle bakoitzaren premiak ezagutu, kasu bakoitzean beharrezkoak diren curriculum-egokitzapenak erabaki, eta metodologia egokiena aukeratzea.

Bestalde, gela egonkorreara atxikitako laguntzailea aipatu behar dugu, tutoretzari lotutako eginkizunik bete ez arren eta ikasle bakoitzaren curriculumaren elaborazioan erantzukizunik ez izan arren, bere esku-hartzea oso garrantzitsua baita ikaskuntza-egoera ugaritan. Beraz, komeni da gela egonkorreko irakasleak iharduerak laguntzailearekin batera planifikatzea, zein zereginetan esku hartuko duen harekin batera erabakitzea, eta lankidetzan horretarako denborak ezartzea.

Ikasle horientzako curriculumaren antolamendua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako curriculum arruntaren aldean nahiko desberdina izateak ez du esan nahi bere funtzionamendua dagoen ikastetxearekin zerikusirik ez izatea.



Bertan gainerako irakasleek duten eraginak erlazio zuzena du ikastetxeak berak bere urteko planean adierazitako tratamenduarekin, gela egonkorrarekin lankidetzarako eta koordinaziorako formulak ezarriz, zeren eta bertako tutorea klaustroaren kidea eta orientabide-zerbitzuko kidea baita, eta lankidetzaren beharrezkoa izango da gutxienez honako alderdi hauetan:

- Ingurune arrunteko espazioak egokitzen parte hartzea, ikasle horiek erraz moldatzeko moduan.
- Zenbait iharduera orokorretan eta eskolaz kanpokoak direnetan ikasleen partaidetza ahalbidetzea.

Orientabide-zerbitzuan bertan koordinazio handiagoa beharko da ikasle-talde honen jarraipena orientatzaileak egokitzeko, eta iharduera egokiak, curriculum-egokitzapenak, etab. eratzeko bide sistematikoak ezartzeko, laguntzako irakasleek hezkuntza-premia berezien eremuan duten lanbide-kualifikazikoa eta esperientzia aprobetxatuz.

Ikastetxe bertako laguntza-zerbitzuez gain, minusbalio larriren bat duen ikasleari osasun eta/edo gizarte-arloko *ikastetxeaz kanpoko zerbitzuek* eskaini ohi diote arreta, gutxi gorabeherako iraupena izango duten tratamendu terapeutiko bereziak nahiz arruntak jasotzeko eta gizarte-zerbitzuen bitartez edo minusbalio-motaren arabera antolatutako gurasoen elkarrekin bidez antolatutako aisia eta astialdiko ihardueretan parte hartzeko.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean gela egonkorra egoteak, espazioaren eta denboraren antolamenduari buruz irakasle arrunt edo laguntzako irakasle guztiak erabakiak batera hartzea behartzeaz gain, minusbalioak ezagutu eta ulertzea xedetzat duten helburuak eta iharduerak ikasle arruntei proposatzea eta pertsona desberdinen desberdintasunaren eta integrazioaren aurrean jarrera positiboak indartzea ahalbidetzen du.

## BIBLIOGRAFIA

- APRAIZ, J. (koord.) et alii 1996: *Educación del alumnado con altas capacidades*. Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.
- BB.EE. 1.989: *Una escuela comprensiva e integradora*. Informe de la Comisión de Educación Especial. Argitalpen Zerbitzu Nagusia del Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.
- BB.EE. 1.993: *Guía para la atención del maltrato a la infancia por los profesionales de la salud*. Consejería de Salud. Madril.
- BB.EE. 1.994: *Los abusos sexuales a menores. ¿Cómo hablar del tema?*. Arabako Foru Aldundia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea. Vitoria-Gasteiz.
- C. WANG, M. 1.995: *Atención a la diversidad del alumnado*. Narcea. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.989: *Intervención educativa en autismo infantil*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.989: *Las necesidades educativas especiales en la escuela ordinaria*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.990: *Las necesidades educativas especiales del niño con deficiencia motora*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.991: *Alumnos con dificultades de aprendizaje en la Educación Primaria*. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.991: *El alumno con retraso mental en la escuela ordinaria*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.991: *Las necesidades educativas especiales del niño con deficiencia auditiva*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- C.N.R.E.E. 1.991: *Recursos materiales para Alumnos con Necesidades Educativas Especiales*. Serie Formación. M.E.C.-C.N.E.E. Madril.
- CARBONELL, F. 1.995: *Inmigración: diversidad cultural, desigualdad social y educación*. M.E.C.-C.D.C. Madril.
- CEI-IDC 1.995: *Guía para la elaboración de Proyectos Integrados de Aprendizaje en los Programas de Garantía Social*. Eusko Jaurlaritz. Bilbao.
- CUNNINGHAM, C. 1.990: *El Síndrome de Down*. Paidós. Barcelona.
- DIAZ-AGUADO, M<sup>a</sup>J. 1.993: *Interacción educativa y desventaja sociocultural*. Ministerio de Educación y Ciencia. C.I.D.E. Madril.

- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Autismo y Necesidades Educativas Especiales*. Argitalpen Zerbitzu Nagusia del Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Deficiencia Motriz y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Deficiencia Visual y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Panel Fonético Silábico*. IBE-CERE. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Primer Ciclo de Educación Primaria y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.992: *Retraso Mental Severo y Profundo y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA 1.994: *Materiales de Apoyo para la realización de Adaptaciones Curriculares Individuales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- FRITH, U. 1.991: *Autismo. Hacia una explicación del enigma*. Alianza I. Madril.
- GALLARDO, M<sup>a</sup> V. y SALVADOR, M<sup>a</sup> L. 1.994: *Discapacidad motórica. Aspectos psicoevolutivos y educativos*. Aljibe. Granada.
- HEGARTY, S. et alii 1.986: *Aprender juntos: La integración escolar*. Morata. Madril.
- JORDAN, J.A. 1.994: *La escuela multicultural. Un reto para el profesorado*. Paidós Bartzelona.
- JUNTA DE ANDALUCIA 1.989: *Intervención educativa con niños de baja visión*. Hezkuntza eta Ikerketa Saila. Malagako Lurraldeko Ordezkaritza. Malaga.
- MARCHESI, A 1.987: *El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos*. Alianza. Madril.
- MARTINEZ ROIG, A. y PAÚL OCHOTORENA, J. de, 1.993: *Maltrato y abandono en la infancia*. Martínez Roca. Bartzelona.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA 1.992: *Adaptaciones curriculares*, en: *Materiales para la Reforma. Etapas de Educación Infantil y Primaria*. M.E.C. Madril.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA 1.992: *La integración de alumnos con necesidades educativas especiales*. Experiencias en el Ciclo Superior de E.G.B. C.N.R.E.E. Madril.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA 1.993: *La organización del Profesorado de Apoyo a los alumnos con n.e.e. en centros ordinarios*. Experiencias y orientaciones. C.N.R.E.E. Madril.
- OCHAITA, E. y ROSA, A. (Compiladores) 1.993: *Psicología de la ceguera*. Alianza.

- OCHAITA, E. y ROSA, A. 1.988: *El niño ciego: Desarrollo Psicológico*. M.E.C.-C.N.R.E.E. Madril.
- PHILIP, C. et alii 1.996: *Educautisme, Les connaissances actuelles sur l'autisme et leurs implications educatives et pedagogiques*. Fondo Social Europa. Paris.
- PUIGDELLIVOL, Y. 1.993: *Necesitats Educatives Especials*. Eumo Editorial. Universidad de Bartzelona. Bartzelona.
- RITA J. y POWEL, S. 1.992: *Las necesidades curriculares especiales de los niños autistas*. Eusko Jaurlaritz. I.B.E.-C.E.R.E.. Vitoria-Gasteiz.
- ROMAN SANCHEZ, J.M. et alii 1.987: *Métodos activos para Enseñanzas Medias y Universitarias*. Cincel-Kapelusz. Madril.
- ROSA, A. et alii 1.993: *El niño con parálisis cerebral: enculturación, desarrollo e intervención*. M.E.C. C.I.D.E. Madril.
- RUIIZ, R. 1.988: *Técnicas de individualización didáctica*. Adecuaciones curriculares individualizadas (ACI) para alumnos con necesidades educativas especiales (Col. Educación y Futuro). Cincel. Madril.
- WANG, C.M. 1.995: *Atención a la diversidad del alumnado*. Narcea. Madril.
- ZABALA I VIDIELLA, A. 1.995. *Com ensenyar*. Grao. Bartzelona.